


HIZNET

Sakontze egitasmoa



Egilea: Ainhoa Delgado Iriondo

Tutorea: Iñaki Martinez de Luna

V. Plangintzaldia

*Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko
erabilera planari buruzko hausnarketa*

AURKIBIDEA

1.	AURREKARIAK EDO NONDIK GATOZEN	4
2.	IKERLANAREN HELBURUA	8
3.	AZTERLAN HONETAKO LAN-ESPARRUA	9
4.	JAURLARITZAN NORMALKUNTZA LANETAN ARI DIREN ERAGILEAK	14
4.1	HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA (HPS)	14
4.2	HERRI ARDULARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA (IVAP)	15
4.3	ELHUYAR ETA EMUN AHOLKULARITZAK	18
4.4	EUSKARA ATALA	19
5.	EUSKARAREN ERABILERA PLANETAKO ANTOLAKUNTZA EGITURAK	22
5.1	EUSKO JAURLARITZAKO HIZKUNTZA OFIZIALEN BATZORDE IRAUNKORRA	22
5.2	HIZKUNTZA OFIZIALEN BATZORDE KUDEATZAILEA	23
5.3	HIZKUNTZA NORMALIZAZIOKO TEKNIKARIEN BATZORDEA	24
6.	EUSKARAREN NORMALIZAZIOAN JARDUTEKO JAURLARITZAKO BALIABIDE NAGUSIAK	26
6.1	OHIKO EUSKARA ESKOLAK	26
6.2	BERARIAZKO PRESTAKUNTZA	28
6.3	ELEBI	29
6.4	IZOBERRI	30
7.	SAILEKO ERABILERA PLANA	33
7.1	DERRIGORTASUN DATAK EZARTZEKO PROPOSAMENA	33
7.2	HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK ALDATZEKO PROPOSAMENA	36
7.3	ATALAK IZENDATZEKO PROPOSAMENA	37
7.4	HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK (HOEI)	41
8.	V. PLANGINTZALDIKO HELBURUAK ETA ZEHARLERROAK LORTZEKO EKIMENAK	43
8.1	KOMUNIKAZIOA LANDU: INTRANETEKO "EUSKARA" TXOKOA	45
8.2	EUSKARA ZERBITZU HIZKUNTZA: HARRERA-PROTOKOLOA	46
8.3	BALIABIDE INFORMATIKOAK jarrera proaktiboa sustatzeko	46

8.4	UDALEKIN HARTU-EMANAK EUSKARAZ	47
8.5	HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK	48
8.6	KARGUDUNEN AGERRALDIAK	49
8.7	KONTRATAZIOAK	50
8.8	BOST MINUTUKO IKASTAROA	51
8.9	EUSKARAREKIKO ATXIKIMENDUA LORTZEKO JARDUERAK	52
9.	ESKU-HARTZEAK	54
9.1	EUSKARA LAN HIZKUNTZA IZATEKO ESKU-HARTZEA	54
	Azterketa komunikatiboak	58
9.2	EUSKARA ZERBITZU HIZKUNTZA IZATEKO ESKU-HARTZEA	60
9.3	IKASLEEN ARTEAN EUSKARA LAN HIZKUNTZA IZATEKO AURRERAPAUZOAK	61
9.4	MINTZAGRAMAK	63
9.5	ALDAHITZ	66
9.6	MOTIBAZIO SAIOAK	67
10.	TARTEKO EBALUAZIOA	70
10.1	EUSKARAREN ERABILERA ZERBITZU HIZKUNTZAN	71
	10.1.1 IDATZIZKO ZERBITZU HIZKUNTZA	71
	10.1.2 AHOZKO ZERBITZU HIZKUNTZA	72
10.2	EUSKARAREN ERABILERA LAN HIZKUNTZAN	73
	10.2.1 IDATZIZKO LAN HIZKUNTZA	73
	10.2.2 AHOZKO LAN HIZKUNTZAREN ERABILERA	74
10.3	ESKARAREN ERABILERA ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HARREMANETAN	74
	10.3.1 IDATZIZKO ERABILERA	74
	10.3.2 AHOZKO ERABILERA	75
10.4	ZEHAR LERROAK	75
10.5	INDARGUNEAK ETA AHULEZIAK	76
11.	ONDORIOAK ETA AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK	79
12.	BIBLIOGRAFIA	85

1. AURREKARIAK EDO NONDIK GATOZEN

EAEko herri administrazioetako hizkuntza ofizialak bi dira: euskara eta gaztelania. Azaroaren 24ko 10/1982 Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko legearen arabera herritarrek aitortuta dute EAEn kokaturiko herri administrazioekin euskaraz nahiz gaztelaniaz jarduteko eskubidea, eta herri administrazioa behartuta dago herritarrek aukeratutako hizkuntzan jardutera, bai herritarra artatzerakoan, bai herritarrek parte hartzen duen espediente eta prozedurak burutzerakoan.

Halaber, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak administrazioak hizkuntzaren alorrean garatu beharreko betebeharrak horiek garatu zituen. Urte batzuk geroago, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 1. artikuluan zera irakur zitekeen: *“EAEn dauden herri administrazioekin euskaraz jarduteko eskubide osoa du herritarrek eta, beraz, eskubide hori bete dadin, herri aginteei, nor bere esparruan, euskara zerbitzu- zein lan hizkuntza modura normaltasunez erabiltzeko hartu beharreko erabaki guztiak hartuko dituzte”*. Euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza gisa erabili ahal izateko neurri eraginkorrak behar ziren, eta horixe da hain zuzen ere herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko planen helburu nagusia. Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak entitate bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu beharko duela ezarri zuen, eta plangintzaldi horiek bost urteko iraupena izan behar dutela.

V. Plangintzaldian gaude orain, eta ezin uka daiteke orain arteko plangintzaldietan hamaika pauso eman direla helburu hori lortze aldera; hizkuntza eskakizunen sistemarekin, esate baterako, langileen euskara gaitasuna hobetzea lortu da. Egun, langile horiek euskara zerbitzu hizkuntza ez ezik lan hizkuntza gisa erabiltzeko gai direla esan genezake, baina administrazio batzuetan ez da horrela. Euskararen erabilera da orain erronka, zerbitzu hizkuntza izatetik lan hizkuntza ere izateko benetako pausoa ematea. Atzera begiratu eta honako hau litzateke Plangintzaldien ibilbidea gure administrazioetan:

Lehenengo plangintzaldian (1990-1995) hizkuntza-gaitasuna areagotzea izan zen helburu nagusia; langileek beren lan eginkizunak euskaraz betetzeko hizkuntza

ezagutza-maila egokia lortzea eta arian-arian bi hizkuntza ofizialetan jarduteko gaitzea. Horretarako, hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak ezarri ziren. Robert L. Cooper-ek “hizkuntza jabeakuntzaren plangintza” bezala definitu zuen plangintza mota hau: “actividades organizadas para promover el aprendizaje de la lengua” (Cooper, 1997: 187). Jomuga, hortaz, lan-jardunetarako beharrezkotzat diren trebetasun zehatzak eskuratzea litzateke. Eta izan ere, ez da gutxi alor horretan lortutakoa.

Bigarren plangintzaldian (1997-2002), aldiz, ezagutzatik erabilera jautsi egiteko beharra antzeman zen. EAEko Herri Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua oinarritzat hartuta, euskararen erabilera areagotzeko neurri osagarriak hartu beharra azpimarratu zen. Besteak beste, erakundeetan plana onartu beharra ezarri zuen eta horren gutxienezko edukia zeintzuk izan behar ziren finkatu zituen.

Hirugarren plangintzaldiak (2003-2007) erabilera aldeko apustua egiten jarraitu beharra zegoela erakutsi zuen. Behin aurreko plangintzaldia bukatuta, egindakoaren balorazioak agerian utzi zuen euskararen ezagutza handia izanik erabilera urria izaten jarraitzen zuela. AEBEmet metodologian oinarritutako plana izan zen; lehenak ezarri ziren, helburuak zehaztu, erabilera normalizatzeko neurriak proposatu eta emaitzak ebaluatzeko bideak eman ziren. Beste behar batzuk ere antzeman ziren, besteak beste: euskararen erabilera normalizatzeko erabiltzen zen diskurtsoa berritzea, komunikazio plan egoki bat egitea, erakunde guztietan hizkuntza irizpideak zehaztea eta erabilera planen jarraipena hobetzea.

Laugarren plangintzaldia (2008-2012): Xede nagusia Administrazio Orokorrean hizkuntzen berdintasunera jotzea izan zen, hau da, euskara ere lanerako hizkuntza “normala” bilakatzea, euskarazko sortze-lana areagotuta. Plangintza mota honi “Plangintza funtzionala” deitzen dio Robert L.Cooperrek: “actividades deliberadas encaminadas a influir en la distribución de las lenguas en la actividad” (Cooper, 1997: 122, 146). Funtzio komunikatibo batzuk gaztelania hutsez betetzetik euskarara ere irekitzea izango litzateke helburua. Berrikuntzen artean, hauetxek: erabilera planen eraginpean zeuden langile kopurua zabaltzea, eta horiek gutxienez funtzio komunikatiboren bat egin behar izatea euskaraz; hau da, euskara ere lan hizkuntza

izatea. Bestalde, Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak banan-banan garatu ziren planean.

V. Plangintzaldia (2013-2017): Xede nagusia, Euskara eta gaztelania izanik hizkuntza ofizialak, herritarrek beraiek aukeratutako hizkuntzan artatzea, herritarren hizkuntza eskubideak betetzea, eta, beraz, aipatutako ofizialtasuna gauzatzeko euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza gisa erabiltzea. Planak 4 helburu nagusi eta zehar lerro finkatzen ditu:

1.HELBURUA	2.HELBURUA	3. HELBURUA	4. HELBURUA
Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea Eusko Jaurlaritzarekiko eta erakunde autonomiadunekiko harremanetan, bereziki zuzeneko arretako eta jendaurreko zerbitzuetan	Euskara lan hizkuntza izateko aurrerapausoak egitea, euskaraz gero eta gehiago sortuz.	Herri administrazioen arteko harremanetan euskara gehiago erabiltzea.	Erakunde-ordezkariei lidergo indartzea euskararen normalizazio prozesua erakunde bakoitzaren ohiko jardunean txertatzeko.

ZEHAR-LERROAK	Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak
	Hizkuntza gaitasuna handitzea
	Euskararekiko atxikimendua areagotzea

V. Plangintzaldiaren abiapuntua aurreko plangintzaldiaren amaierako ebaluazioak emandako informazioa da. Hauek balorazio horren arabera hobetu beharreko kontuetako batzuk, eta ondorioz, V. Plangintzaldian jaso direnak:

- **Erabilera planen kudeaketari** dagokionez, zeharkakotasun falta antzeman zen, euskara planak Euskara Zerbitzuaren barruan garatzen baitziren. Erabilera plan horiek, gainera, ez zuten jarraipenik eta hainbat erakundek onartuta ere ez zuten. V. plangintzaldiko helburuetako bat, hortaz, euskara plana erakundetzea eta sail guztietara zabaltzea izan da.
- **Euskararen ezagutzari** dagokionez, balorazioak zera erakutsi zuen: erabilera ezak ezagutza murrizten duela. Horregatik, **erabilera** da V. Plangintzaldiko ardura nagusia. Administrazioari proaktiboa izateko eskatuko zaio, herritarren eskaerari itxaron gabe. Lan hizkuntzari dagokionez, langileek gaztelaniaz aritzeko duten joera ekiditeko arnaguneetan proiektu pilotuak abian jartzea aurreikusten da.
- IV. Plangintzaldiko balorazioak gabeziak antzeman zituen **kanpo irudian**, besteak beste, behin-behineko iragarkietan edo web orrietan.
- **Hizkuntza irizpideak** erakunde guztietan ezarri eta behar bezala komunikatzeko beharra antzeman zen, baita hauen betetze-mailari buruzko jarraipena egiteko prozedura zehaztu beharra.
- **Lidergoaren alorrean**, arduradunen inplikazioa eta HPSren gidaritzaren indartu beharra aurreikusi zen.

V. Plangintzaldi honetan parte hartuko dute jendaurreko administrazio ataletan atal elebidun izendatu direnak, gazteriarekin zuzeneko harremanak eta ohikoak dituzten ataletan administrazio atal elebidun izendatutakoak, gizarte izaerako administrazio atalen artean elebidun izendatu direnak eta izaera orokorreko administrazioa ataletan administrazio atal elebidunak izendatutakoak. Baina gainera, hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa izanik egiaztatuta duten guztiek eta, hala nahi badute, derrigorrezkoa izan gabe jada egiaztatuta dutenek. V. Plangintzaldiko sarreraren adierazten da langile guztiek izango dutela erabilera planaren eragina, baina azterlan honetan ikusiko dugunez, ez da erraza guztiengana iriztea.

2. IKERLANAREN HELBURUA

Sakontze egitasmo honetan Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Euskararen Erabilera Plana aztertuko dugu. Plan hau V. Plangintzaldian ezarritakoari jarraiki diseinatu da, bertan azaltzen diren helburuak eta zehar-lerroak lortzeko asmoz.

Indarrean dagoen legeria ez ezik, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoari erreparatuz gero, administrazioetako jardunean bi hizkuntza ofizialak normaltasunez erabili beharko genituzke. Alde batetik, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko (zerbitzu hizkuntza); bestetik, lan munduan euskararen erabilera areagotu beharra daukagulako (lan hizkuntza).

Aurreko plangintzaldietan egindako lanari esker, herri administrazioetako %64,74 langilek egiaztatuta du jada hizkuntza eskakizunen bat, eta badauka, beraz, zenbait lan euskaraz egiteko gaitasunik. Gaitasuna izan arren, ordea, beste zenbait faktore direla medio, gaztelania da egun administrazioetako lan hizkuntza nagusia eta, zenbait kasutan, bakarra.

Sakontze egitasmo honetan V. Plangintzaldiak egoera horri irtenbidea bilatzeko proposatutako neurri eta ekimenak aztertuko ditu, baina Sail bateko normalkuntza teknikariaren ikuspuntutik begiratuta eta esparru zehatz horretan egindakoari erreparatuta. Normalkuntza lanetan aritzeko dauden baliabideak eta egindako ekimenak ikuspegi kritiko batetik aztertuko ditugu. Halaber, 2015ean Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean egindako Tarteko Ebaluazioak egoeraz jabetzeko argazkia eskainiko digu, ahulguneak eta indarrak ezagutzeko aukera, eta batik bat, aurrera egiteko aldatu beharrekoari buruzko hausnarketa ahalbidetuko du.

3. AZTERLAN HONETAKO LAN-ESPARRUA

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila 2013an sortu zen, Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren bidez, EAEko Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatu zirenean. Aurreko Industria, Berrikuntza, Turismo eta Merkataritza Saila eta Ingurumen, Nekazaritza eta Arrantza Saila batu egin ziren sail berri hau sortzeko. Aipatutako dekretu horrek, sail honen eta gainontzekoen egitekoak eta jardun-arloak finkatu zituen (EHAA 243; 2012-12-17). Ondoren, apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuak Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen (EHAA 78; 2013-04-24).

Arantza Tapia Otaegui da sailburua, eta berarekin batera 16 goi-kargudunek dute saila gidatzeko ardura. Sail horren egoitza nagusia, Eusko Jaurlaritzak Gazteizko Lakua auzoan duen bulegoetan dago, baina Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde bakoitzeko hiriburuan lurralde ordezkari bat dago. Halaber, beste hainbat bulego txiki ere badaude EAEko hiru lurraldeetan.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila lau Sailburuordetzatan banatuta dago, eta hauekako bakoitzak hainbat zuzendaritza hartzen ditu bere barne:

1. Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza
 1. Teknologia eta Estrategia zuzendaritza
 2. Ekintzaitzaren, Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritza
2. Industria Sailburuordetza
 1. Industria Garatzeko Zuzendaritza
 2. Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza
 3. Nazioartekotze Zuzendaritza
3. Merkataritza eta turismo Sailburuordetza
 1. Turismo Zuzendaritza
 2. Merkataritza Zuzendaritza
4. Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetza

1. Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza
2. Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza
3. Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza
4. Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza

Halaber, zeharkakoak diren beste bi zuzendaritza ditu Sailak:


1. Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza
2. Zerbitzu Zuzendaritza

Euskara atala Zerbitzu Zuzendaritzaren barruan kokatuta dago, eta normalkuntza teknikari bakar bat ari da lanean.


Bestalde, sail honi hainbat erakunde atxikitzen zaizkio: Energiaren Euskal Erakundea (EEE/EVE);Eraldaketa Lehiakorrerako sozietatea, S.A.; Basquetour Turismoaren Euskal Agentzia S.A.; Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, A.B.(NEIKER);HAZI Fundazioa eta ELIKA (Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa).

IV. plangintzaldian Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailei atxikitako sozietate publikoekin, zuzenbide pribatuko erakunde publikoekin, sektore publikoko fundazioekin eta EAEko sektore publikoko partzuergoekin egindako lanari esker, V. plangintzaldi honetan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposamena egiten du, eurek euren erabilera planak onar ditzaten, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren eragin eremuaren barruan. Ondorioz, Erabilera planaren eranskinean atal bat dago sozietate publikoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, fundazioek eta partzuergoek euren erabilera planak erabaki ditzaten.


V. Plangintzaldiaren hasieran, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean 443 langile zeuden, erakunde-ordezkariek barne. Saileko 298 langilek hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatu dute, hau da, Saileko %67ak. Horrek esan nahi du %33k ez duela inolako hizkuntza eskakizunik. Datu horietan ez dira goi-kargudunak kontutan izan.



V. Plangintzaldiaren hasieran 185 lanpostuk derrigortasun data zuten eta 258k ez. Derrigortasun-data igarota izan eta oraindik lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez zutenak 142 ziren guztira. Derrigortasun-data ez izan arren lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta zuten 63 langilek. Guztira, derrigortasun data izan zein ez izan, lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta zuten 205 langilek.



Interesgarria da gure saileko langileen batez besteko adina aztertzea. Datozen 15 urteetan 273 langilek hartuko dute erretiroa; hau da, saileko langileen %62. Lanpostu horietatik 154k ez dute derrigortasun datarik. Gure helburuetako bat, lanpostu horiei derrigortasun data ezartzea izan da, etorkizunerako funtsezkoa iruditzen zaigu eta. Azterlan honetako 7.1. atalean Saileko Erabilera Plana azalduko dugu, eta horren barruan, Sailak Funtzio Publikoari derrigortasun datak ezartzeko proposamena.



Erakunde-ordezkarien gaitasunari dagokionez, Legegintzaldi honetan Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean izendatuak izan diren 18 goi-kargudunetatik, gehienak gai dira euskaraz ulertzeko, hitz egiteko, idazteko eta irakurtzeko. Beraz, neurri batean euskaraz lan egin dezaketela esan dezakegu. 2014ko hasieran 4 goi-kargudun zeuden euskara eskolak jasotzen, baina urte horren erdialdean, Zerbitzu Zuzendaritzak ikastaro horiek bertan behera uztea erabaki zuen.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila handia da, eta euskararen egoera, zeharo ezberdina zuzendaritza bakoitzean. Aipagarria da, Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzarena: Une honetan 27 langiletik 22k lanpostuak duen hizkuntza-eskakizuna egiaztatu du. Beste zuzendaritza batzuetan, datuak ez dira hain onak.

Lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileen ehunekoa, zuzendaritzaka:

HE (%)	ZUZENDARITZAK
%63	Kabinete eta Komunikazioa
%56	Zerbitzuak
%44	Teknologia eta Estrategia
%40	Ekintzailtza, Berrikuntza eta Informazioaren Gizartea
%62	Industriaren garapena

%42	Energia, Meategiak eta Industria Administrazioa
%33	Nazioartekotzea
%50	Merkataritza
%70	Turismoa
%21	Landaren eta Itsasertzaren garapena
%28	Nekazaritza eta Abeltzaintza
%74	Arrantza eta Akuikultura
%39	Kalitatea eta Elikagaien industria

4. JAURLARITZAN NORMALKUNTZA LANETAN ARI DIREN ERAGILEAK

4.1 HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA (HPS)

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren barruan dago. Patxi Xabier Baztarrika Galparsoro Sailburuordearen gidaritzapean, bere helburua Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politika garatzea eta politika horri jarraipena egitea da. Zereginen artean, honako hauek daude: euskara unitateen jardunerako irizpideak zehaztea, ikerketa soziolinguistikoak bultzatzea, euskararen normalizazioaz eta arauketaz arduratzen diren erakundeekin harremanak izatea, hizkuntza eskakizunak erabakitzeke proposamenak egitea eta euskararen ezagutza ziurtatzen duten titulu eta ziurtagiriak homologatzeko prozedurak abiatzea.

Legealdi hasieran Gotzon Lobera Revilla izendatu zuten Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendari. Egun, Joseba Lozano Santosek betetzen du ardura hori. Zuzendaritza honen egitekoen artean daude Eusko Jaurlaritzaren eta Administrazio Orokorraren plangintzaldiak egitea, bete eragitea eta ebaluatzea, bai eta gainerako herri administrazioen plangintzaldien jarraipen eta ebaluazioa egitea. Hori ez ezik, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratua eramaten dute, herritarren hizkuntza eskubideak babestu, hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak proposatu, herri aginteen arteko koordinazioaz arduratu hizkuntza normalizazioaren arloan, eta zinpeko itzultzaile eta interpreteen erregistroa kudeatzen dute, besteak beste.

Zuzendaritza honen eta sailetako normalkuntza teknikarien arteko lankidetzaren ezinbestekoa da. IV. Plangintzaldiaren balorazioan HPSri lidergo falta egotzi zitzaion, baina onartu beharra dago Plangintzaldi honetan aurrerapausoak eman direla. Plangintzaldiaren hasieratik garrantzia eman zitzaion HPSko eta Sailetako arduradunen arteko komunikazioari, horrek plangintzaren eraginkortasunean eragina izango zuela sinetsita. Ondorioz, Sailetako arduradunek maiz izan dituzte HPSko ordezkariekin bilerak eta antolatutako ekimenak garaiz ezagutu dituzte. Horrek, bidea erraztu digu

normalkuntza teknikarioi; lehen gure produktua (egin nahi genuena) saldu behar izaten genuen, eta orain, salduta dugu dagoeneko.

Halaber, Elhuyarren aholkularitzarekin batera, lehen aldiz Sailek modu bateratuan lan egiteko ahalegina egin du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, eta normalkuntza teknikariok hainbestetan eskatutako lidergoaren lehen urratsak ematen ari da.

4.2 HERRI ARDULARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA (IVAP)

IVAP, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea, erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzaren oraingo Herri Administrazioa eta Justizia Sailari atxikia. IVAPen misioa Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioekin lankidetzan aritzea da, herritarrei ematen dieten zerbitzua eraginkorragoa, efizienteagoa eta elebiduna izan dadin lortzeko. Lankidetzatza hau zerbitzu publikoaren balio komunetan oinarritzen da: berrikuntza eta etengabeko hobekuntza, bezeroarenganako orientazioa, euskararen erabilerarekiko konpromisoa, ingurumena zaintzea, parte-hartzea eta komunikazio eraginkorra, pertsonak errespetatzea, proaktibotasuna, profesionaltasuna, talde-lana eta zerbitzu publikoaren jarrera.

Uztailaren 27ko 16/1983 Legeak IVAPen egiturari eta zereginei buruzko alderdi esanguratsuak zehazten ditu; euskal administrazio publikoen jardunerako bereziki garrantzitsuak diren hiru eremuren inguruan biltzen dira:

- Herri-administrazioen zerbitzurako langileak hautatzea eta prestatzea.
- Herri-administrazioen zerbitzurako langileen euskalduntzea, itzulpenak, interpretazioa, terminologia eta administrazio-hizkeraren normalizazioa.
- Ikerlanak egitea eta eskolak ematea, bai administrazioaren inguruan, era zabalean, bai euskal autonomiaren berezitasunen inguruan zehazki, eta baita liburuak zein aldizkari espezializatuak argitaratzea ere.

Prestakuntzari dagokionez, IVAPen eskaintza zabala eta eraginkorra da. Azken urteetan asko izan dira euskarazko ohiko ikastaroak egin dituzten langileak, berriazko

prestakuntza jaso dutenak eta Trebakuntza edo ELEBI egitasmoei esker euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izateko aurrerapausoak eman dituztenak.

Sailetako langileen prestakuntza premiei erantzuteko eskaintza IVAPek kudeatzen du: ohiko euskara eskolak, berariazko prestakuntza eta ELEBI egitasmoa. Normalkuntza teknikarion lana eskaintza horri buruzko informazioa zabaltzea, aholkularitza eskaintzea, premiak antzematea, eskaintza kudeatzea eta jarraipena egitea da.

Itzulpeni dagokienez, Jaurlaritzak erronka zaila dauka zalantzarik gabe. Datuek argi erakusten dute Jaurlaritzan oso gutxi sortzen dela euskaraz, eta, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak betetze aldera, langile askok Itzulpen Zerbitzu Ofizialera jotzen dutela. Honek hamaika arazo sortzen ditu, bai IZOBERRI Itzulpen Zerbitzu Ofizialak ezin diolako aurre egin hainbesteko eskaerari eta baita zerbitzu horrek dirutza izugarria suposatzen duelako ere. Euskarak lan hizkuntza izateko dituen zailtasunen isla da, eta konponbidea zinez konplexua da.

IZOBERRIn itzulpenak onartzeko baldintza zehatzak ezartzen saiatu dira, adibidez, hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileei beraiek euskaraz idatzi dezaketen dokumenturik ez itzultzea. Oraingoz ez da horrelakorik onartu, baina lortuko balitz, normalkuntza teknikariontzat ere onuragarria izango litzateke, gaitasuna duen langilea euskaraz ere lan egitera behartuko luke eta. Hala ere, hainbat zalantza sortzen zaizkigu: alde batetik zaila da dokumentuaren egilea nor den jakitea, gehienetan administrariak egiten baitute itzulpen-eskaera; bestalde, nork egin beharko luke “iragazki” lana? Nork agindu beharko lioke gaitasuna duen langile horri euskaraz ere lan egiteko? Galdera horiei erantzuteko kontuan izan behar dugu gaur egungo errealtatea: praktikan, euskararen erabilera borondatezkoa da administrazioan.

Dena dela, 2015eko ekainean IZOren Erabiltzaileentzako Gida zabaldu da. Bertan, IZOri eskabideak egiteko baldintzak zehaztu dira, betiere Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean jasotako irizpideekin bat etorritik. Hortaz, euskararen erabilera sustatzeko erabakiren bat edo beste hartu dute, esate baterako:

- Testuak gaztelaniara itzultzea euskaratzea baino askoz merkeagoa da, euskarazko sorkuntza bultzatze aldera.
- Esloganak sortzeari dagokionez, “bi hizkuntzetan batera asmatzea da bide bakarra” azpimarratzen du gida honek, hizkuntza jakin batean asmatutako hitz-jokoen ez baitute izaten itzulpen errazik izaten. Gai hau ebatzi zuen Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren 2014ko urtarrilaren 3ko 1/2014 ebazpenak, II.2.3.8 atalean.
- Jaurlaritzaren Administrazioak egindako hainbat kontratutan enpresa esleipendunak produktu edo zerbitzuak bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharra ezartzen da. Kontratutako enpresek entregatu beharreko testuetan hizkuntza-betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egin behar dela gogorazten da gida honetan, eta IZO produktuon hizkuntza-kalitatea ziurtatzeko laguntza emateko prest dagoela.

Azterlan honetan kontratazioei buruzko atalean ikusiko dugun moduan, kontratazioetan jarraitu beharrezko irizpide horiek, gehienetan, ez dira betetzen.

Itzulpenekin jarraituz, IZOBERRIren sorrerak beste arazo batzuk ere sortu ditu. Lehen itzultzaileak zeuden Saitetan eta premiazko itzulpen eta zuzenketa guztiak egiten zituzten. Gaur egun normalkuntza teknikariak dira euskarak sailetan duen erreferente bakarra, baita itzulpenak eta zuzenketak egiteko ere. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean normalkuntza teknikariak kudeatzen ditu IZOBERRIra bidaltzen diren eskera gehienak, eta, gainera, itzulpen laburrak eta premiazkoak egiten ditu. Kontuan izan horrelako sail handietan zenbat diren egunero sortzen diren horrelako beharrak eta zenbat denbora kentzen dion honek teknikariari benetako normalkuntzailana egiteko.

4.3 ELHUYAR ETA EMUN AHOLKULARITZAK

V. Plangintzaldi honetan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Elhuyar eta Emun enpresen laguntza izan du.

2014tik hasita, Elhuyarrek aholkularitza eskaini dio HPSri eta Sailetako normalkuntza teknikariei. Lehen urte horretan Justizia eta Administrazio Sailak eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak uko egin zioten zerbitzu horri. Arduradunen esanetan, lan hori Jaurlaritzako baliabideekin egin zitekeen, eta, hortaz, ez zuten zerbitzu hori azpikontratatzeko beharrik ikusi. Hortaz, Saileko normalkuntza teknikariak ez du beste Sailek izan duten laguntza izan bere erabilera plana aurrera kudeatzeko. 2015ean aldiz, Sail bi horiek aholkularitza-zerbitzua ordaindu dute.

IV. Plangintzaldian Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari egin zitzaion kritiketako bat lidergo falta izan zen. Jaurlaritzako teknikariek behin eta berriz eskatu zioten komunikazio gehiago, koordinazioa, lidergoa. Elhuyarrek hein baten erantzuna eman dio eskaera horri. Lan prozedurak zehaztu ditu eta normalkuntza teknikariok modu bateratuan lan egitea ahalbidetu dute. Halaber, orain arte egin ez diren ekimenak dinamizatu dituzte; besteak beste, euskararen erabilera areagotzeko Aldahitz egitasmoa, mintzagramak edo motibazioan eragiteko saioak.

Elhuyarren aholkularitza lanak normalkuntza teknikarien bakardadeari aurre egiteko ere balio izan du. Sailetan lanean ari diren teknikari hauek askotan adierazi dute sentimendu hori; hain sail handietan modu eraginkorrean lan egiteko zailtasuna, inoren babesik gabe. Hala ere, aitortu beharra dago Elhuyarren laguntza horrek bere mugak ere badituela, batez ere aholkularitza hori noizbehinkako bileretan oinarritzen delako. Beharbada, beste bat da egin beharreko hausnarketa: ez ote behar diren baliabide horiek etxe barruan, hau da, Jaurlaritzak ez ote behar dituen normalkuntza teknikari gehiago bere lana modu egokian egin ahal izateko. Kontuan hartu, esate baterako, Enplegu Saileko teknikariak 731 Langile dituela bere eraginpean, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailekoak 2.173, eta, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunekoak 434. Oso zaila da teknikari bakar batek behar bezalako zerbitzua ematea horrelako sail handietan.

EMUNi dagokionez, V. Plangintzaldiko Tarteko Ebaluazioa egiteko materiala prestatu du: galdetegia, aginte-panela eta jarraibideak. Kasu honetan, sailtako normalkuntza teknikarior bano, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari emaniko zerbitzua izan da. Hala nola, gure lana datuak jasotzea besterik ez da izan. Elhuyarrekoen kasuan bezala, EMUNek eginiko lan hori Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egin zezakeen hausnartu beharko litzateke.

4.4 EUSKARA ATALA

Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia onartzeari buruzko urtarrilaren 3ko 1/2014 Ebazpenak honako hau dio: “Plan honek bide emango die sailei eta erakunde autonomiadunei zehazteko administrazioko langileak eta erakunde-ordezkariek zertan eta nola hasiko diren euskara erabiltzen eguneroko lanean, betiere sail bakoitzeko Euskara Atalak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren gidaritzapean, zehazturiko irizpideei jarraiki”. Euskara Atala da, beraz, plana Sailean egokitzeko ardura izango duena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatu zituen, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu zituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren hamargarren xedapen gehigarrian jasotzen den bezala, sail bakoitzak Euskara Atalak baliatuko ditu. Dekretu horrek ezartzen duenari jarraiki, Euskara Atalek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren gidaritzapean jardungo dute euren sailtako eta erakunde autonomiadunetako erabilera planak garatzeko lanetan. Zehazki, abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren hamargarren xedapen gehigarriak honela dio: “Euskararen erabilera bultzatzeko politika administrazioaren jardunean zeharkako politika izan dadin eta dagokion ardatz-gune izan dadin, Lehendakariak eta sail guzti-guztiek euskara atal bat sortuko dute beren egitura organiko eta funtzionalean, politika publikoetan eta kudeatzen dituzten administrazio-gai guztietan euskara bultzatzen lagundu dezan, hizkuntza-politikaren alorrean eskumena duen organoaren irizpideei jarraituz”.

Euskara Atalak izango dira euren esparruan euskararen erabilera plana diseinatzeko, inplementatzeko eta jarraitzeko neurriak hartzeko arduradunak. Sailak eta erakunde autonomiadunek beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide

materialak jarriko dituzte, Hizkuntza Ofizialen Batzorde Kudeatzailea jarriko dute abian eta plana garatzeko eman behar diren urrats guztiak emango dituzte. Aurreko ataletan azaldutakoaren harira, ekintza horiek egiteko Euskara Atalak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta IVAPen parte-hartzea izango du..

Euskara Atala diogunean, hala ere, ez gara talde bati buruz ari. V. Plangintzaldi honetan, Euskara Atal gehienak bi lagunez osatuta daude: normalkuntza-teknikaria eta zuzendaritza horretako arduraduna. Hortaz, “atal” deitzea gehiegizkoa da. Aurretik aipatu dugun bezala, giza-baliabide horiek ez dira nahikoak sailetan euskararen normalizazioan jarduteko.

Normalkuntza teknikarion monografiari erreparatuz gero, hauek dira gure eginkizunak:

- Itzulpengintzarekin lotutako kontsultei erantzutea
- Dokumentazioa itzultzea
- Euskara-planen arloan hizkuntza-eskakizunen jarraipena egitea
- Euskara-planen arloko espedienteak kudeatzea
- Euskara-planen arloan jarduerak sustatzea
- Galderei erantzutea
- Hizkuntza-gaikuntzarako ikastaroak eta epeak proposatzea
- Hizkuntza-normalkuntza gaietan IVAPekin koordinatzea
- Hizkuntza-gaikuntzarako ikastaroetarako eskaerak izapidetzea
- Hizkuntza-gaikuntzako ikastaroen aprobetxamendu-mailaren jarraipena egitea
- Euskararen erabilera sustatzeko indarrean dauden planen jarraipena eta ebaluazioa egitea

Hala ere, Eusko Jaurlaritzan ari garen normalkuntza teknikariok talde heterogeneoa osatzen dugu, prestakuntza eta behar ezberdinekin. Eusko Jaurlaritzako normalkuntza teknikari izateko bi baldintza bete behar dira: unibertsitateko lizentziaduna izatea eta 4. Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea. Gure lana modu egokian betetzeko nahikoa ote den hausnartu beharko genuke. Soziolinguistika

Klusterrak “Soziolinguistika arloko teknikarien formazio premien azterketa” argitaratu zuen 2008an eta bertan, zera adierazten zen: “gaur egun soziolinguistika arloko teknikari bezala lan egiteko beharrezko gaitasunen jabe izateko, ez da nahikotzat jotzen unibertsitateetan dagoen eskaintza”. Beharbada, HIZNETeko graduondokoak maila teorikoari dagokion hutsunea betetzen du, baina ez lanaren alde praktikoa: taldeak dinamizatzea, komunikatzea, sortzea, planifikazio eta antolaketa teknikak erabiltzea, etab. Normalkuntza teknikarien lanean, ezaugarri pertsonalek garrantzi handia dute, eta horiek ere jorratu beharko liriateke.

Egunerokoan, normalkuntza teknikariak gara euskarak geure Sailetan duen erreferente bakarrak, eta ondorioz, gure hizkuntzarekin lotuta dauden kontu guztien ardura dugunak. Bestalde, aipatu beharra dago teknikari bakoitza funtzionalki bere Sailaren ardurapean dagoela, eta, hortaz, bertan esandakoa egin beharko duela.

Baina, gainera, Sailetan euskara normalizatzeko lanetan ari garen teknikarion lanpostua bera ere ez da berdina. Batzuk, A mailakoak, “normalkuntza teknikariak” dira; besteok aldiz, “Itzulpen eta normalkuntza teknikariak” gara, B mailakoak. Horrek, noski, eragina du gure eguneroko lanean: normalizazio lanetan aritzeaz gain, Sailean gaztelaniaz sortutako hainbat idatzi itzuli behar izaten ditugu. Egiteko honek, sarritan, lanorduren zati handi bat hartze du eta normalkuntzan jarduteko denbora asko kentzen digu.

Honen harira, aurreko plangintzaldian Sailetako normalkuntza teknikari guztiak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren barruan, guztiak atal berean biltzeak izango lituzkeen onurei buruzko hausnarketa egin zen. Normalkuntza teknikarion artean iritzi ezberdinak zeuden: batzuk Sailetan egoteak hurbiltasuna dakarrela adierazi zuten eta beharrezkoa zela funtzionalki orain arte bezala jarraitzea; beste batzuk, HPSren barruan egonik gure eginkizunak normalizazioarekin lotuagoak egongo zirela argudiatu zuten, eta ez liriatekeela erabakiko Sail bakoitzaren unean-uneko beharren arabera. Argi dago, ordea, hainbestetan sentitu izan dugun bakardadeari konponbidea emango liokela. Azkenean, hausnarketa hutsean geratu zen.

5. EUSKARAREN ERABILERA PLANETAKO ANTOLAKUNTZA EGITURAK

V. Plangintzaldi honek Sailetako erabilera planak aurrera ateratzeko gutxieneko antolaketa egiturak finkatzen ditu:

- Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra
- Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra
- Hizkuntza Normalizazioko Teknikarien Batzordea

5.1 EUSKO JAURLARITZAKO HIZKUNTZA OFIZIALEN BATZORDE IRAUNKORRA

Erabilera Planaren jarraipenerako organo gorena da, eta proiektu osoaren ardura du. Honako hauek osatzen dute:

- Batzordeburua: Hizkuntza Politikarako sailburuordea.
- Batzordeburuordea: Herri administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria.
- Idazkaria: Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzako Hizkuntza Plangintzako arduraduna.
- Erabilera Plan Nagusiaren idazkaritza teknikoaren ordezkaria.
- Sailetako eta erakunde autonomiadunetako hizkuntza ofizialen batzorde kudeatzaileetako ordezkari bana.
- IVAPeko zuzendaria.
- Funtzio Publikoko zuzendaria.
- Langileen Batzorde ordezkari bat.

Batzorde hau gutxienez urtean behin bildu behar da. Bere eginkizunen artean, besteak beste, urtero Sailetako Hizkuntza Ofizialen Batzorde Kudeatzaileek emandako informazioa aztertu eta baloratzea, erabaki estrategikoak hartzea eta planak aurrera ateratzeko sor daitezken eragozpenak gainditzen laguntzea daude.

5.2 HIZKUNTZA OFIZIALEN BATZORDE KUDEATZAILEA

Sailetako eta Erakunde Autonomiaduneko Hizkuntza Ofizialen Batzorde Kudeatzailea da erabilera plana aurrera eramateko ardura duen organoa. Sailak berak aukeratzen ditu batzordekideak, baina V. Plangintzaldian, guztion homogeneousutasuna bilatze aldera, ondorengoekin osatzea proposatzen du:

- Batzordeburua: Euskara Atalaren zuzendaria
- Idazkaria: batzordeburuak izendatutakoa.
- Unean–unean ekintzak lantzea dagokien ataletako langileen ordezkaria.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria.
- IVAPeko ordezkaria.
- Sail bakoitzak edo erakunde autonomiadun bakoitzak horrela erabakitakoak.
- Erabilera Plan Nagusiaren idazkaritza teknikoaren ordezkaria.

V. Plangintzaldi honetan garrantzi nabarmena ematen zaio Sailetako Batzorde Kudeatzaileari, izan ere, berea baita erabilera planaren erantzukizuna. Gutxienez urtean bitan bildu beharko litzatekeela ezartzen badu ere, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean birritan besterik ez da bildu Legegintzaldi honetako hiru urte hauetan: lehen aldiz Sailerako erabilera plana onartzeko, eta bigarreanean, 2015eko Kudeaketa Plana onartzeko. V. Plangintzaldian batzorde honi egokitzen zaizkion gainontzeko eginkizunak (lanpostuetako hizkuntza eskakizunei dagozkien aldaketak edo egokitzapenak egitea, derrigortasun data berriak jartzeko proposamenak egitea, plana kudeatzea eta jarraipena egitea, euskararen erabilerak egoera egin dezan beharrezkoak diren baliabideak eta neurriak hartzea, etab.) Euskara Atalaren edo, zehatza izateko, normalkuntza teknikaren esku geratu dira. Hortaz, Batzorde honek ez du eraginkortasun handirik V. Plangintzaldiak proposatzen dituen helburuak eta zeharlerroak betetze aldera.

5.3 HIZKUNTZA NORMALIZAZIOKO TEKNIKARIEN BATZORDEA

Euskararen normalizazioaren gaineko esperientzien elkar trukerako eta metodologiak partekatzeko gune gisa deskribatzen du V. Plangintzaldiak. Hauek dira batzorde honetako partaideak:

- Batzordeburua: Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria.
- Idazkaria: batzordeburuak izendatutakoa.
- Erabilera Plan Nagusiaren idazkaritza teknikoaren ordezkaria.
- Sail bakoitzeko eta erakunde autonomiadun bakoitzeko Euskara Ataleko hizkuntza normalizazioko teknikaria.
- Sailetako kanpo-aholkulari teknikoak.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzako Hizkuntza Plangintzako arduraduna.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzako Hizkuntza Plangintzako teknikari bat.
- IVAPeko ordezkari bat.

Batzorde honetan plangintzaldiko neurriak lortzeko metodologia aztertu eta ekarpenak egiten dira, teknikarien arteko esperientzia trukea bultzatzen da eta urtez urteko eta tokian tokiko kudeaketa planeko neurrien implementazioa bideratzen da. V. Plangintzaldian batzorde hau hilean behin bildu beharko dela adierazten bada ere, bilera hauek maiztasun txikiagoarekin egiten dira. Hala ere, legegintzaldi honetan Batzorde honetako bilerak nahiko emankorrak izan dira, eta bere osotasunean ez bada ere, plangintzaldian zehaztutako eginkizunak bete ditu.

Azkenik, V. Plangintzaldian aipatzen ez bada ere, Eusko Jaurlaritzan jarduten duen beste talde bat aipatu nahiko nuke: **Hizkuntza normalizazioko teknikarien lantaldea**. Lantalde honetan parte hartzea borondatezkoa da. Sail eta erakunde autonomiadun batzuetako normalkuntza teknikariek osatutako lantaldea da, eta helburu nagusiak esperientzien elkar trukaketa eta plana aurrera ateratzeko lankidetz

dira. IV. Plangintzaldian lantalde hau gutxi gorabehera hamabostean behin batzartzen bazen ere, Plangintzaldi honetan oso gutxitan bildu da. Ondorioz, normalkuntza teknikariok elkarlanerako foro hori galdu dugu, beharbada, ez dugulako jakin izan lantalde hori behar bezala dinamizatzen. Lantalde hori berriro abian jartzea garrantzitsua izango litzatekeela uste dugu, azken finean, guztiek ditugulako antzeko erronka eta zailtasunak.

6. EUSKARAREN NORMALIZAZIOAN JARDUTEKO JAURLARITZAKO BALIABIDE NAGUSIAK

6.1 OHIKO EUSKARA ESKOLAK

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren 3. artikulua ezartzen du hizkuntza-prestakuntzako zerbitzuen lehentasunezko helburua dela Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeetan diharduten karrerako funtzionarioek eta lan-kontratu finkoko langileek dagokien hizkuntza-gaitasuna lortzea, baldin eta beren lanpostuek derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna izendatuta badute. Horretarako, euskara eskolak eskaintzen dira urtero. Informazio guztia EHAA-n argitaratzen diren ebazpenetan jasotzen da:

- Urritik ekainera bitarteko eskolaratzea apirilko ebazpenetan arautzen da.
- Otsailetik ekainera bitarteko eskolaratzea azaroko ebazpenean arautzen da.
- Udako ikastaroetan izena emateko jarraibideak maiatzean argitaratzen dira IVAPeko web-orrian.

Ikastaro horietan 1. 2. 3. Eta 4. Hizkuntza-eskakizunak prestatzeko ikastaroak sartzen dira, eta ordu-kreditu deritzona ematen zaio langile bakoitzari horietan parte hartzeko. Sistema horren bidez, Administrazioak langile bakoitzari hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko ordu kopuru bat finantzatzen dio.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren apirilaren 30eko Agindua arautzen du Eusko Jaurlaritzako langileentzako ordu-kredituen sistema. Ordu-kreditua (OK) Eusko Jaurlaritzako langile bakoitzari lanorduetan finantzatuko zaion hizkuntza prestakuntzako gehieneko ordu-kopurua da. Eusko Jaurlaritzako langileen kasuan, ordu-kreditua lanorduen barruan hizkuntza-prestakuntza jasotzen duten langileei ezartzen zaie. Lanorduz kanpoko ikastaroak egiten dituzten Administrazio Orokorreko langileek ez dute ordu-krediturik izango ikastaroak lanorduen barruan egiten hasi arte.


Ordu-kredituen sistema 2004-05 ikasturtean hasi zen aplikatzen. Beraz, ikasturte horretatik hasita, Administrazio Orokorreko langile bakoitzari bere ordu-kreditua finkatzen zaio lanorduetan egiten duen lehen ikastaroan. Ordu-kreditua

kalkulatzeko, langilearen hasiera-maila eta egiaztatu behar duen hurrengo hizkuntza eskakizuna hartzen dira kontuan.

2013-14 ikasturtean 29 langilek hasi zituzten ohiko euskara eskolak gure Sailean: 21 lanorduetan ikasteko eta 8 lanorduz kanpo. 2014-2015 ikasturtean Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko 21 lagun ari dira ikasten, horietako 4 lanorduz kanpo.

Azken urteetan behera egin du ohiko eskoletan euskara ikasten ari diren langileen kopuruak. Alde batetik, dagoeneko langile askok lanpostuak duen hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duelako; bestetik, ikasten ari ziren batzuk agortuta dutelako ordu kreditua.

Eusko Jaurlaritzak ahalegin handia egin du langileak euskalduntzeko, eta lan horren emaitza ikusteko egiaztatutako hizkuntza eskakizunen kopurua begiratzea besterik ez dago. IV. Inkesta soziolinguistikoaren arabera, hauxe da egoera:



Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean, V. Plangintzaldiaren hasieran, lanpostuen %44,57 zuen derrigortasun data, eta langileen erdiak hizkuntza eskakizuna egiaztatu zuten, % 50,95k hain zuzen ere. Datu horien arabera, langileen zenbateko handi batek euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza gisa erabiltzeko gai direla pentsa genezake, baina IV. Plangintzaldiko balorazioak erakutsitakoaren arabera, ezagutzatik erabilerako bidea jorratu beharra daukagu oraindik.

Beharbada, interesgarria izango litzateke euskara ikasi ez duten horiek zergatik ez duten egin aztertzea, edo managementarekin egin ohi den paralelismoari jarraiki, “bezero” horiek zergatik ez ote duten “euskara erosi” aztertzea.

Euskara ikasi ez dutenen artean asko adinagatik salbuetsita egongo lirateke. Eusko Jaurlaritzako langileen adinaren batez bestekoa 50,8 urtekoa da, eta Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera, datozen hamabost urteetan langileen %68,08k erretiroa hartuko du. Hortaz, datozen urteetan Eusko Jaurlaritza “gaztetu” ahala, EAEko hezkuntza sistemaren ondorioz egiaztatutako hizkuntza eskakizun kopuruak gora egin beharko luke. Honek egoera hobetuko du seguruenik, baina aldaketa honi aurre egiteko prest egon beharko ginateke, langile berriek egiteko modu zaharrak erabiliz gero, erabilerak nekez egingo baitu gora.

Azkenik, beste kontu bat azpimarratu nahiko nuke: euskaraz lan egiteko gutxieneko gaitasun hori lortuta ere, askok eta askok ez du euskara bere eguneroko lanean erabiltzen. Hizkuntza bat ikasteak eskatzen duen esfortzua kontuan hartuta, behin ikasi eta gero zergatik ez dute erabiltzen euskara? Plangintzaldi bakoitzean hizkuntza eskakizunen kopurua igo ote den eta hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak betetzen ote diren jakiteko balorazioak egiten dira, baina, orain arte, gutxi erreparatu zaio langileen jarrerei, motibazioei eta hizkuntza hautuei... Beharbada, Erabilera Planek kontuan hartu beharko lituzkete, helburua euskararen erabilera areagotzea baldin bada.

6.2 BERARIAZKO PRESTAKUNTZA

Berariazko hizkuntza prestakuntza administrazioko langileei zuzendutako prestakuntza berezitua da, langileek eguneroko lanean dituzten hizkuntza eragozpenak gainditzen laguntzeko. Oro har, administrazioan euskararen erabilera sustatzea dute helburu: ahozko eta idatzizko erabilera, alegia. Saio praktikoak dira denak, langileek eguneroko lanean izan ditzaketen hizkuntza eragozpenak gainditzen laguntzeko pentsatutakoak. Kalitatezko hizkera zer den administrazioko idazki eraginkorrak nola idatzi, jendaurrean nola hitz egin, etab. Lehentasuna izango dute Erabilera Planaren eraginpean dauden langileek. Berariazko hizkuntza prestakuntzan aurrez aurreko eta lineako ikastaroak eskaintzen ditu IVAPek.

2014an Saileko 7 langilek bakarrik jaso dute berriazko prestakuntza Sail honetan. Horretarako hainbat arrazoi daude:

- Sailean mugatuta dago urtean egin daitezkeen ikastaroen kopurua. Bi ikastaro besterik ezin dira egin. Langile askok beste mota batzuetako ikastaroak lehenesten dituzte. Saileko batzordean Erabilera Planaren barne dauden ataletan, berriazko ikastaro bat, gutxienez, kopuru horretatik kanpo ustea eskatu da (Berdintasunaren gainekoekin lortu den bezala).
- Talde mugatuak dira, eta askotan, izena eman duten langile guztiek ezin izaten dute berriazko ikastaro hauetan parte hartu.
- Talde batzuetan ez dute gutxiengo ikasle kopurua lortzen eta ikastaroa bertan behera uzteko erabakia hartzen da.

6.3 ELEBI

2012ko abenduan IVAPEk "ELEBI" egitasmoa jarri zuen abian, aurreko "Trebakuntza"ren ordezkoa. Programa horren bitartez, antzeko behar komunikatiboak dituzten langileekin mintegiak osatu, eta beren funtzioei dagozkien dokumentuak lantzen dira lau eta sei ikasle artean osatutako taldeetan. Taldea astean ordu eta erdiz elkartzen da, eta langile bakoitzak beste ordu erdi bat dauka banakako saio bat egiteko.

2014-2015eko ikasturtean eginiko egokitzapenen ostean, Erabilera Planaren eraginpean dauden euskarazko atal eta elebidunetako langileek dute lehentasuna, idatzizko dokumentu edo ahozko jarduna euskaraz egiteko benetako beharra baitute. Aurrerago, hain zuzen 7.3. atalean azalduko dugu ze baldintza bete behar dituzten euskarazko atalak eta atal elebidunak horrela izendatu ahal izateko. Langile hauek ELEBI mintegietan lau hilabeteko prestakuntza jasotzen dute.

2014 ikasturtean Sailean hiru mintegi sortu ziren: goi-kargudunen idazkariek mezuak, gutunak eta ahozko elkarrizketa laburrak landu zituzten; administrariekin osatutako taldean beraien lan jardunean erabiltzen dituzten gutun ereduak prestatu

zituzten; atal bateko teknikariek, gehienetan erabiltzen dituzten ebazpenak landu eta aurrerantzean erabili ahal izateko ereduak landu zituzten.

2015eko otsailean 3 talde berri sortu dira, hirurak Donostiako Lurralde Ordezkaritzan: herritarrak artatzeko ahozkoa lantzeko (arreta eta laguntzarako administrariak); mezuak eta gutunak lantzeko (administrariak eta laguntzaileak) eta ebazpenak lantzeko (teknikariak). IVAPek ez ditu onartu Sailean aurreikusitako beste bi talde: horietako bat kanpoan utzi dute talde berriei aukera emateko aitzakiaz; besteak ez omen zituen helburuan ondo zehaztuta.

ELEBI da beharbada normalkuntza teknikariok egun daukagun baliabiderik eraginkorrena. Mintegietan parte hartu duten langileek baliagarritzat jo dute, eta euskara lan-hizkuntza izateko helburua lortzeko pausoak ematen lagundu diela aitortu dute. Hala ere, hutsuneak ere baditu. ELEBIko taldeak sortzeko deialdia lau hilabetetik behin egiten da eta ezin da aurretiaz jakin IVAPek taldea onartuko duen ala ez. Gainera, langile guztiei aukera berriak emate aldera, mintegi bakoitza lau hilabetetik gora ez luzatzea eskatu dute egitasmoaren arduradunek, baina kontuan izan behar dugu, tarte horretan 16 saio besterik ez direla egiten, eta kasurik gehienetan ez duela denborarik ematen aurreikusitako helburuak lortzeko. Hortaz gain, 2015ean proposatutako bost taldeetatik IVAPek hiru besterik ez ditu onartu. Azkenik, "ELEBI"ren aurretik zegoen "Trebakuntzak" banakako laguntza eskaintzen zuen eta langileek etekin handiagoa ateratzen omen zioten programari, baina kontuan hartu behar da "Trebakuntza" oso produktu garestia zela.

6.4 IZOBERRI

IZOBERRI Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren misioa Eusko Jaurlaritzaren administrazioak euskaratik eta euskararako itzulpen eta interpretazio alorrean dituen beharrak asetzea da eta, oro har, sektore publikoari zerbitzu hori eskaintzea, kalitatezkoa eta euskararen erabilera sustatuko duten baldintzetan. Bestalde, euskarazko terminologia juridiko-administratiboa finkatzea eta zabaltzea ere baditu helburu eta administrazioan euskarazko testugintzarako tresnak eta baliabideak eskaintzea. Hori guzti hori, administrazioan euskararen erabilera bultzatzeko, euskararen erabileraren normalizazioa helburu.

Dagoeneko ez dago itzultzailerik Eusko Jaurlaritzako Sailetan. Honek eragin zuzena izan du normalkuntza teknikarion lanean. Esate baterako, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean normalkuntza teknikaria arduratzen da Industria Saila ohiaren itzulpen guztiak kudeatzeaz edo itzultzeaz. Lan horrek, ezinbestean, langile horren denbora tarte handi bat hartzen du. Kontuan izan, esate baterako, 2014an 1428 itzulpen eskaera jaso zituela, eta, itzultzaile profesionala ez izan arren, horietako 450 inguru berak itzuli zituela.

Bestalde, aspalditik datorren kontua da, Eusko Jaurlaritzan “gehiegi” itzultzen dela. Honek hamaika arazo sortzen ditu, tartean itzulpengintzak dakarren kostu ekonomikoa eta hainbesteko eskaerak sortzen duen etengabeko lan-karga jasanezina. Euskaraz sortu beharra aldarrikatu behar dugu, baina horretarako, benetako apustua egin behar du Jaurlaritzak; erabakiak hartu eta arduradunak inplikatu beharko ditu horretarako gaitasuna duten langileek euskaraz sor dezaten. Langileen motibazioa eta kontzientzia hartzea ere beharrezkoa da; euskaraz sortzea beraien egitekoa ere badela onartu beharko dute.

Halaber, V. Plangintzaldiak Hizkuntza Ofizialen erabilera eta itzulpenari buruzko irizpideak ere zehazten ditu. Administrazioaren komunikazioak bi hizkuntza ofizialetan egin behar badira ere itzulpena ez da nahitaezkoa horretarako. Badaude gaztelaniaren mendekotasun hori alde batera uzteko moduak:

Idazketa elebiduna bermatu beharko litzateke; bi hizkuntzetan sortzea, edukia errespetatuz, estiloa hizkuntza bakoitzaren ezaugarrietara moldatuta. Lan horretan laguntzeko, IVAPekin elkarlanean idazki eredu normalizatuak prestatu daitezke, kontsulta zerbitzua eskaini, informatikako baliabideak erabiltzen irakatsi, etab.

Korredakzioa da beste aukeretako bat. Dokumentua gaztelaniaz idatzi eta ondoren itzultzera bidali beharrean, testuak hasieratik bi sortzaile izango ditu, bakoitza ondoen menderatzen duen hizkuntzan espezializatuta, baina elebidunak biak. Korredaktoreak ados jarri beharko dira testuaren helburua, egitura, estiloa, etab. definitzeko, baina ondoren, bakoitzak bere hizkuntzaren ezaugarrietara moldatuko du idatzia.

Itzulpen tutorizatua ez da aipatzen indarrean dagoen Plangintzaldian, baina egin izan dira saiakera gutxi batzuk Eusko Jaurlaritzako sail batzuetan. Erredaktoreak IZOBERRI Itzulpen Zerbitzu Ofizialak izendatutako itzultzaile batekin batera lan egingo du itzulpena egokia egiteko, euskararen ezaugarrietara egokitutako itzulpena. Kontua da prozedura ez dagoela bat ere finkatuta IZOBERRIn, eta prozesua gehiegi luzatzen dela. Ondorioz, langileek uko egiten diote itzulpen tutorizatuari, finean erosoagoa baita itzulpena eskatzea.

7. SAILEKO ERABILERA PLANA

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuari jarraiki, V. Plangintzaldiaren lehen urtean, hots, 2013an, eragindako erakunde guztiek epealdi horretarako plana onartu behar izan dute. Aipatutako Dekretuak ezarritakoa betetze aldera, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Batzorde Kudeatzaileak 2015eko maiatzean onartu zuen Saileko Erabilera Plana. Ondorengo atal hauek jasotzen ditu:

- Derrigortasun data berriak ezartzeko proposamena
- Hizkuntza eskakizunak aldatzeko proposamena
- Atalak izendatzeko proposamena
 - Euskarazko atalak
 - Atal elebidunak
- Planaren helburu nagusiak eta zehar lerroak
- Hizkuntza Ofizialak erabiltzeko irizpideak

Azken bi atal hauek V. Plangintzaldian jaso bezala txertatu dira Saileko Erabilera Planean. Goazen bada, gainontzeko atal horietan egindakoa aztertzeraz.


7.1 DERRIGORTASUN DATAK EZARTZEKO PROPOSAMENA

Euskararen erabilera normalizatzeko planak gogorarazten digu, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 11.1 artikulua dioenari jarraiki, zenbait lanposturi derrigortasun data ezarri behar zaiela: “Administrazio bakoitzean eta plangintzaldi bakoitzean derrigor bete beharreko indizeak ezarriko du zein den derrigorrezko eskakizunen portzentajea, alegia, lanpostu-kopuru osoa aintzat hartuta, zenbat lanpostuk izan behar duten izendatuta derrigorrezko hizkuntza eskakizuna”.

Hori horrela, V. plangintzaldirako derrigor bete beharreko indizea Eustatek Erroldako edo Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikako datu soziolinguistikoaren arabera 2006an ofizialki emandako datuetan oinarritu behar da. EAEko indize berria % 48.46koa izango da. Gure sailekoa, aldiz, %44,57koa zen plangintzaldiaren hasieran. Hortaz, saileko egoera aztertu beharra zegoen indize horri egokitzeko, gutxieneko abiapuntua dela kontuan izanda.

Lanpostuko zerrendak

➤ Sailaren egoera orokorra 2013ko azaroan:



Oharra: langile-kopurua guztira, 434

V. Plangintzaldiak derrigortasun datak (DD) ezartzeko hurrenkera bat zehazten du:

1. Jendaurrekotasuna. Honen arabera, jendaurreko zuzeneko arretako lanpostu guztietan derrigortasun data ezartzea bermatuko da. "Irizpide hau da euskara zerbitzu hizkuntza gisa bermatzeko tresnarik behinena, eta hizkuntza eskubideak eraginkortasun handiagoa betetzeko bidea".
2. Trinkotasuna: hizkuntza eskakizuna egiaztatu duten lanpostuen kopurua %60tik gorakoa duten administrazio ataletan derrigortasun data berriak ezartzea proposatzen du V. Plangintzaldiak, betiere atalburuak dagokion hizkuntza eskakizuna edo bat baxuagoa egiaztatuz baldin badu. Modu horretan, izaera elebiduna izan dezaketen atalak izenda daitezke sailetan.
3. Etorkizunerako berme gisa: atal honetan sartuko lirateke V. Plangintzaldi honek iraun bitartean erretiroa hartuko dutenak, dagoeneko lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatuta dutenean okupatzaileak eta, dagoenean, titularrak.

Hauek dira aipatutako hurrenkeraren arabera proposatuko derrigortasun datak:

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean eskatzen diren DD berriak	Kopurua
Jendeaurrekotasunaren arabera	8
Atalen trinkotasunari begira	9
Etorkizuneko berme gisa: Erretiroa hartzeko adinean daudenak V. Plangintzaldian	7
Etorkizuneko berme gisa: Dagoeneko HE egiaztatuta duten lanpostuak (okupatzailea titularra denean)	8
Etorkizuneko berme gisa: Dagoeneko HE egiaztatuta duten lanpostuak (jaberik gabeko lanpostua denean)	21
Etorkizuneko berme gisa: Dagoeneko HE egiaztatuta duten lanpostuak (jabeak eta titularrak HE egiaztatuta)	5
GUZTIRA	58


Funtzio Publikoak proposatutako derrigortasun data horiek onartuz gero, ondorengo hau izango litzateke Saileko egoera:



Lanpostuko zerrendak

➤ Sailerako proposamena:

Derrigortasun Datak



Derrigortasun Data kopurua:

IV. Plangintzaldian: 193 ➔ % 44,47

V. Plangintzaldian: 251 ➔ % 57,83

Oharra: langile-kopurua guztira, 434

Proposamen hau egiteko, derrigortasun-datak ezartzeko hurrenkerari erreparatu behar izan diogu teoriarik, baina praktikan hori ez da egia osoa. Gure Sailean, eta besteetan ere, "langilerik ez kaltetzea" hartu da irizpide nagusitzat. Hau da:

derrigortasun-datak ezarri dira lanpostuaren titularrak eta okupatzaileak dagokion hizkuntza eskakizuna jada egiaztatuta zeukaten kasuetan. Eta, ez guztietan, hala ere. Zenbait kasutan, lanpostu horiek lan-poltsetatik datozen langileekin hornitzeak dituen zailtasunak daudela argudiatuz, ez zaie derrigortasun datarik ezarri. Lan-poltsetan ez omen dago hizkuntza eskakizunak egiaztatuta dituzten langile nahikorik.

V. Plangintzaldi honetan herritarrek zerbitzu hizkuntza bermatuta izan behar dutela azpimarratzen da, baina, hala ere, ezin izan diogu ezarri derrigortasun-data jendaurreko lanpostu guztiei, aurretik aipatu dudan moduan, langileei kalterik ez eragitea hartu baita irizpide nagusitzat. Beharbada, kontu hau sail bakoitzaren eskuetan utzi beharrean, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu beharko luke, “goitik-behera” ezarritako betebeharreko legez.

7.2 HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK ALDATZEKO PROPOSAMENA

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen zerbitzuan diharduten langileen euskara gaitasuna da hizkuntza-eskakizuna. Gaitasun hori lau mailatan banatzen da: lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren hizkuntza-eskakizunak. Administrazioko lau hizkuntza-eskakizun horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitu ziren 297/2010 Dekretuaren bidez. Administrazioko langileen hizkuntza eskakizunak IVAPek kudeatzen duen hizkuntza eskakizunen erregistroan jasotzen dira. Hiru bide daude hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko: IVAPek urtean bitan egiten dituen hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko deialdiak, Herri-administrazioeko erakundeek euren lanpostuak betetzeko deitzen dituzten hautaketa prozesuak eta Europako Erreferentzi Marko Bateratuak bideratutako euskara tituluen baliokidetzaren bitartez.

Erabilera planeko helburuak betetzeko zutoinetariko bat lanpostuen hizkuntza eskakizunak dira. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak honako lanpostuen hizkuntza eskakizunak aldatzeko proposamena egingo zion Funtzio Publikoko Sailburuordetzari:

Lanpostuaren kodea	Dot	Lanpostuaren izena	Oraingo HE	Proposatutako HE
510160	18	Estatistikako teknikaria	2	3
510170	1	Arrantza Antolamenduko teknikaria	2	3

Kasu honetan ere, langileei ez kalterik eragitea hartu da irizpide nagusitzat. Horrek benetako proposamen logiko eta eraginkorra egin ahal izatea eragozten du.

7.3 ATALAK IZENDATZEKO PROPOSAMENA

Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusiak III.3.1 eta III.3.2 puntuetan zehazten ditu atal elebidunak eta euskarazko atalak izendatzeko baldintzak:

Atal elebidunei dagokienez:

- Atala osatzen duten lanpostuetarik % 60tik gorakoek derrigortasun data izatea.
- Atalburu den langileak eta gainontzeko langileetarik %60tik gorakoek euren lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea betiere atalburuak dagokion hizkuntza eskakizuna edo bat baxuagoa egiaztaturik baldin badu. Laugarren hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan, kontuan izango da langileak hirugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea.

Euskarazko atalei dagokienez:

- Atalburuak eta atala osatzen duten lanpostu guztiek edo ia guztiek diharduten lanpostuetan derrigortasun data izatea.
- Atalburu den langileak eta gainontzeko langile guztiek edo ia guztiek diharduten lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea. Laugarren hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan, kontuan izango da langileak hirugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea.
- Zeregin gehienak euskaraz betetzea, betiere herritarrek zerbitzu hizkuntza hautatzeko duten eskubidea urratu gabe.

Atal Elebidunek bermatu beharko dute modu autonomoan gaitasuna dutela euren zerbitzua hizkuntza ofizial bietan gauzatzeko, hau da, euskara zerbitzu-hizkuntza

gisa bermatu beharko dute eta zereginak arian-arian euskaraz zein gaztelaniaz, batean zein bestean, bete daitezzen ahalegina egingo du. Hori gauzatu ahal izateko, V. Plangintzaldian zehar horrela izan dadin bideak ezarriko dira, hala nola diagnostikoa, esku-hartzea eta ebaluazioa, horiek guztiak era mailakatuan. Neurri hauetan aplikatuko dira nagusiki 1. eta 3. helburuen neurriak eta zehar-lerroei dagozkienak.

Euskarazko Atalek arestikoa bermatzeaz gain, euskaraz jardungo dute nagusiki, hau da, euskara zerbitzu hizkuntza izateaz gain lan-hizkuntza ere izango dute. Hori gauzatu ahal izateko, V. Plangintzaldian zehar horrela izan dadin bideak ezarriko dira, hala nola diagnostikoa, esku-hartzea eta ebaluazioa, horiek guztiak era mailakatuan. Atal hauetan aplikatuko dira nagusiki 1., 2. eta 3. helburuen neurriak eta zehar-lerroen neurriak.

Irizpide horiek kontuan izanik Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Batzorde Kudeatzaileak ondorengo atalak atal elebidun edo euskarazko atal izendatzea erabaki zuen:

Atal elebidunak:

ZUZENDARITZA	ATALA	LANP OSTU AK	DD+		EGIAZTATU	
			Kop.	%	Kop.	%
GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARITZA	Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza	29	21	% 72,41	20	% 68,97
ARRANTZA ETA AKUIKULTURA ZUZENDARITZA	Zuzendaritza osoa	36	35	% 97,22	25	% 73,53
TURISMOA	Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzakoa	1	1	% 100,00	1	% 100,00
MERKATARITZA ETA TURISMO SAILBURUORDETZA	Merkataritza eta Turismo Sailburuordetza	1	1	% 100,00	1	% 100,00
NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKAGAIEN POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA	Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikarako Sailburuordetza	1	1	% 100,00	1	% 100,00
KALITATEAREN ETA ELIKAGAIEN INDUSTRIEN ZUZENDARITZA	Kalitatearen eta Elikagaien Industriren zuzendaritza	1	1	% 100,00	1	% 100,00
INDUSTRIA	Arabako Lurralde Ordezkaritzakoa	4	3	% 75,00	4	% 100,00
GUZTIRA		73				

Euskarazko atalak:

ZUZENDARITZA	ATALA	LANPOS TUAK	DD+		EGIAZTATU	
			Kop.	%	Kop.	%
ZERBITZU ZUZENDARITZA	Estatistikak	2	2	% 100,00	2	% 100,00
ZERBITZU ZUZENDARITZA	Antolaketa eta Sistemak	6	5	% 83,33	6	% 100,00
INDUSTRIA	Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza	5	5	% 100,00	5	% 100,00
TEKNOLOGIA ETA ESTRATEGIA ZUZENDARITZA	Teknologia eta Estrategia Zuzendaritza	3	3	% 100,00	3	% 100,00
GUZTIRA		16				

Laburbilduz, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean, egun, derrigortasun data berriak onartu gabe daudenean oraindik, 4 euskarazko atal eta 7 atal elebidun ditugu. Asmoa, atal horietan esku-hartzeak burutzea da, euskara, benetan, zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izan dadin horietan.

Proposatutako atal elebidunak eta euskarazkoak xehakatuta azaldu ondoren, hona hemen eragindako lanpostuen datu orokorrak:

	LANPOSTU-KOPURUA	EHUNEKOA
SAILEKO EDO ERAKUNDEKO LANPOSTUAK GUZTIRA	434	% 100
ATAL ELEBIDUNETAN LANPOSTUAK GUZTIRA	73	% 16,82
EUSKARAZKO ATALETAN LANPOSTUAK GUZTIRA	16	% 3,68
ERAGINDAKO LANPOSTUAK GUZTIRA	89	% 20,50

Hala ere, izendapen horiek egiteko prozeduran eta ondorioetan hainbat akats edo arazo aurkitu ditugu.

Lehenik eta behin, izendapenak Funtzio Publikoak dituen zerrendak oinarritzat hartuta egin dira, baina, datu horiek ez datoz bat Saileko benetako egiturarekin. Adibide bat jartzearren, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan atal elebidun izendatu dugun atala (29 langilez osatuta dagoena) ez da bere horretan existitzen. Izan ere, langile horiek hainbat ataletan banatuta daude. Beste atal batzuetan, zerrenda ofizialean ez dauden langileek lan egiten dute, edo zerrendan daudenak beste atal baterako lan egiten dute.

Beste datu bat ere azpimarratu nahiko nuke. Izendatutako atal batzuk pertsona bakar batez osatuta daude. Ataltzat jo daitezke? Zentzurik al du euskarazko atal edo atal elebidun gisa izendatzeak? Zein da helburua?

Izendapenak esku-hartzeekin lotu nahi dira. Hau da; atal horietan lan egin nahi dugu euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza gisa erabiltzeko gai direlako. Baina gai al dira benetan? Egunerokoak kasu askotan ezetz erakusten digu. IV.


Plangintzaldiaren ebaluazioak argi utzi du erabilera ezak ezagutza murrizten duela. Hizkuntza eskakizuna egiaztatzea lortu duten langile askok ez du euskara lan-hizkuntza gisa erabiltzen eta horrek gaitasuna bera murrizten du. Egia da izendatutako atal horiek izendatu ez diren besteak baino egoera hobean daudela teoriarik, baina ezin dugu ziurtatu jo euskara zerbitzu hizkuntza edo lan hizkuntza erabiltzeko prest daudenik.

Azkenik, beste kontu bat aipatu nahiko nuke. Eusko Jaurlaritzako Sail guztietan langileen mugikortasun ikaragarria dago, eta inork ez digu ziurtatuko eragindako atal batek bere horretan iraungo duenik luzaroan. Beste modu batera esanda, atal baten eragindako lana eta euskararen erabilera sustatzeko emandako pausuak bertan behera gera daitezke langile batzuk joan eta berriak etorri gero.

Aipatu ditugun egitekoak jasotzen dituen Saileko Erabilera Plana onartzeko Saileko Hizkuntza Ofizialen Batzorde Kudeatzailea sortu zen. Aurreko atal baten aipatu dugun moduan, batzorde honek dauka nagusiki, erabilera planaren erantzukizuna eta berea da Sailerako erabilera plana onartzeko eta urterako ekintza plana prestatu eta onartzeko ardura. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Batzorde Kudeatzailea 2014ko maiatzean sortu eta bildu zen lehen aldiz, hain zuzen ere, erabilera plana onartzeko. Bildu aurretik, plan hori Saileko zuzendari eta sailburuorde guztiei bidali zitzairen beraien proposamen edo iradokizunak egin zitzaizkien, baina ez zen erantzunik jaso.

Saileko Euskara Atalak erabaki zuen batzorde honetan honako hauek parte hartuko zutelarik: Sailburuordetza bakoitzeko zuzendari bana, Kabinete eta Komunikazio zuzendaria, hiru lurralde ordezkariak, IVAPko ordezkaria, HPSko ordezkaria, langileen ordezkaria eta Saileko Euskara Atala. Guztira 13 kide egon beharko liriteke Batzordean, baina lehen batzar honetan, 2014ko maiatzaren 15ean, 7 besterik ez ziren egon. Honek, hain sarritan aipatzen diren euskararekiko atxikimendua, motibazioa eta lidergoa bezalako kontzeptuak zalantzan jartzen ditu. Bestalde, Batzorde horrek, Sailetan ardura duten kargudunak osatua egonik, konpromisoak hartu eta ekimen gehiago izan beharko lukeela uste dugu; ez dadila izan aurrez idatzitako plan bat onartzeko protokolo hutsa.

Erabilera Plana komunikatzeko modu erakargarriagoa eta berritzaileagoa behar zelakoan, normalkuntza teknikariak eginiko bideo bat erabili zen batzordekideei aurkezteko. Bideoak Erabilera Planaren ildo nagusiak laburtu zituen lau minututan, Eusko Jaurlaritzako irudi errealak, ahotsa eta musika uztartu ziren. Lan hori ikusita, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Erabilera Plana Eusko Jaurlaritzako Sail guztiei, langile guztiei helarazteko baliagarria izan zitekeela pentsatu eta bideo berri bat egiteko eskatu zion teknikariari. Bideo hori HPSekin elkarlanean egin da eta JAKINA atarian dago ikusgai, ondorengo esteka honetan: http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/v_plangintzaldia/eu_def/index.shtml



7.4 HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK (HOEI)

Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak bi hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak dira. Araubide hori orokorra da, bi hizkuntza ofizialak nola eta noiz erabili behar ditugun ezartzen duena eta hainbat esparrutan aplikatu beharko litzatekeena: erakunde-ordezkarien jarduna, ahozko eta idatzizko harremanak, komunikazio telematikoak, diru-laguntzak, kontratazioak, tresna eta aplikazio informatikoak, etab. V. Plangintzaldiaren arabera sail bakoitzak, arau orokorrak kontuan hartuta bereak

zehaztu beharko lituzke, eta ondoren, betetze-mailaren jarraipena egin beharko litzateke. Jarraipen hori, ordea, ez da modu sistematikoan egiten. Hala ere, arian-arian egiten diren ebaluazioek argi erakusten digute irizpide horiek ez direla bere osotasunean betetzen.

8. V. PLANGINTZALDIKO HELBURUAK ETA ZEHARLERROAK LORTZEKO EKIMENAK

Hauek dira, modu orokorrean, plangintzaldi honetan Euskara Atalak burututako ekintzak:

Euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izateko egitura antolatu

- Saileko Batzorde kudeatzailea eratu.
- Erabilera Plana diseinatu eta Batzorde Kudeatzailean aurkeztu.
- 2014ko eta 2015eko Kudeaketa Planak diseinatu eta erakunde barruan zabaldu.

Komunikazioa landu

- Erabilera Plana zabaldu:
- Atal batzuetan aurrez-aurreko bileretan plana azaldu.
- Plana intraneteko “euskara” txokoan eskegi. Txoko hori noizean behin eguneratu euskara kontuei buruzko informazioa langileen artean zabaltzeko (Plana, hizkuntza irizpideak, euskara eskoletarako irizpideak, berariazko prestakuntza, ELEBI, harrera-protokoloa, itzulpen-irizpideak, etab.).
- Erabilera planari buruzko bideoa editatu, honen berri emateko eskutitza zabaldu eta langile guztiei esteka helarazi.

Lehenengo helburua: Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu

- Harrera-protokoloa diseinatu jendaurreko langileen artean zabaltzeko.
- ELEBIko taldea sortu herritarrak artatzen dituzten langile talde batekin ahozkoa hobetzeko.

Bigarren helburua: Euskara lan hizkuntza izateko aurrerapausoak ematea:

- Euskarazko ataletan eta atal elebidunetan esku-hartzeak abian jarri.

- ELEBIko lau mintegi sortu:
 - Goi-kargudunen idazkariekin, mezuak eta gutunak lantzeko.
 - Teknikariekin, ebazpenak eta txostenak lantzeko.
 - Administrari laguntzaileekin, mezuak eta gutunak lantzeko.
 - Teknikariekin, ebazpenak lantzeko.
- Jarrera proaktiboa landu baliabide informatikoen bidez.

Hirugarren helburua: Administrazioen arteko harremanetan euskara areagotzea

- EJrekin harremanak euskara hutsean izan nahi dituzten udalen eskaerei buruzko informazioa zabaldu arduradunen eta langileen artean.

Lehenengo zehar-lerroa: Hizkuntza Ofizialak erabiltzeko irizpideak

- Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak zabaltzeko hiruorrikoen berri eman eta saileko langileen artean banatu.
- Kontratazioetan Hizkuntza Irizpideak bete daitezen barne-komunikazioa zabaldu arduradunen artean.
- Erakunde-ordezkarien agerraldietako hizkuntza-erabilerak aztertu eta hauetan aplikatu beharreko Hizkuntza Ofizialak erabiltzeko irizpideak zabaldu.

Bigarren zehar-lerroa: Hizkuntza gaitasuna handitzea

- Euskara eskolak kudeatu (informazioa zabaldu, matrikulak kudeatu, etab.)
- Euskarazko berariazko prestakuntza ezagutzera eman eta beharren arabera eskaini.
- ELEBIko mintegiak sortu, helburuak adostu eta jarraipena egin.
- Bost minutuko ikastaroa zabaldu egunero
- Derrigortasun Data berriak ezartzeko proposamena egin
- Hizkuntza Eskakizunak egokitzeko proposamena egin

8.2 EUSKARA ZERBITZU HIZKUNTZA: HARRERA-PROTOKOLOA

V. Plangintzaldiko lehen helburua da herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea, bereziki zuzeneko arretako eta jendaurreko zerbitzuetan. Helburu hau lortzeko planak ezartzen dituen neurriei jarraiki jendaurreko lanpostuen mapa osatu eta aztertu genuen, eta herritarrei harrera egiteko protokolo bat prestatu genuen. Protokolo hori aurkezpen gisa diseinatu da eta modu errazean, langile horien ohiko egoeretan azaltzen diren adibideekin azaltzen ditu aurrez-aurrekoan nahiz telefonoz herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko jarraitu beharreko irizpideak. Harrera egiteko protokolo hori aurrez-aurreko saioetan aurkeztu zaie langile gutxi batzuei. Gainontzekoek intraneteko “euskara” txokoan ikus dezakete. Neurri hau interesgarritzat jo badugu ere, egindakoa zabaltzeko modua ez dela egokia izan uste dugu. Inork gutxi irakurtzen ditu intranetean eskegita dauden dokumentuak, beraz, aurrez-aurreko saio horiek eraginkorrakoak liratekeela argi dago. Hala ere, ez dago behar beste giza baliabide eguneroko lanaz gain horrelako saioak langile guztiekin egin ahal izateko.

8.3 BALIABIDE INFORMATIKOAK JARRERA PROAKTIBOA SUSTATZEKO

HPSk 2014ko azken hiruhilebetekoan baliabide informatikoei buruzko kanpaina bat abian jartzeko asmoa zuen, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzako langile gehiagok ezagutu eta erabil ditzaten baliabideok. Baliabide horiek modu egoki eta erakargarrian zabaltzeko planifikazio zehatzagoa eta denbora gehiago behar zutela erabaki eta ekimen xumeagoak proposatu zituzten:

- Irudi korporatiboari dagokionez, sarri esaten dugu modu proaktiboagoan erakutsi behar dugula Jaurlaritzaren euskaltasuna. Horretarako, mezu elektronikoetan euskararen erabileraren aldeko esaldia txertatzeko proposamena luzatu zitzaien langileei.
- Bestalde, aspaldi jarri zen abian EU identifikatzailea agerrarazteko kanpaina outlook-eko helbide-zerrendan; eta hori ere berpiztu behar zela erabaki zen.

Gauzak horrela, arestiko ideia bakoitzeko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ikas unitate bana prestatu zuen normalkuntza teknikari bakoitzak bere sailean zabal zezan. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean bi ekimen hauek zabaltzeko gutuna eta ikas unitatea mezu elektronikoaren bidez zabaldu genituen. Ez dakigu zehatz mehatz zenbat langilek jarri duen ordutik EU identifikatzailea edo zenbaterik txertatu duen euskararen aldeko esaldia bere sinaduraren ondoan, baina ez zaigu iruditzen ekimen hauek arrakasta handia izan dutenik. Beharbada, komunikatzeko modua bera ere ez da oso eraginkorra izan. Kontuan izan behar dugu gainera, ekimen hauek aspaldian zabaldu zirela lehen aldiz, eta benetan jarrera proaktiboa duten langileek orduan burutu zituztela.

Bestalde, sail batzuen artean euskaraz lan egiteko baliabide informatikoak zabaltzeko komunikazio plana egiteko konpromisoa hartu dugu: ELET, Idaba, Dudanet, etab. Ez dugu euskarria zehaztu, baina langile guztiengana modu erraz eta erakargarrian iristeko zerbait diseinatu nahiko genuke.

8.4 UDALEKIN HARTU-EMANAK EUSKARAZ

Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusiaren hirugarren helburu estrategikoa da Herri Administrazioen arteko harremanetan euskara gehiago erabiltzea. Plangintzaldi honetan ez da gauza handirik egin ordea helburu hori betzeko. Presioa, edo pizgarria kanpotik etorri zaigu, hain zuzen ere tokiko erakunde batzuetatik. EAEko hainbat udalek eskaera egin diote Eusko Jaurlaritzari eurekin dituen idatzizko eta ahozko hartu-eman guztiak euskara hutsean izan daitezten. 2013ko abenduan Hernaniko alkatearen gutuna iritsi zen, eta ondoren, beste hainbat udalenak ere jaso zituen Hizkuntza Politikara Sailburuordetzak. Argi dago aipatutako eskaera hori Plangintzaldiko hirugarren helburuari lotzen zaiola eta eskaera hori asebate behar duela Jaurlaritzak. Hirugarren helburu horretarako neurrien artean, besteak beste, honako hauek daude: *“euskarazko sareak sortzea hainbat erakundetako atalen artean (...) Erakundeen arteko akordioak bultzatzea euren arteko harremanetan euskaraz egin dezaten (...) Eusko Jaurlaritzarekin eta erakunde autonomiadunekin harremanak dituzten administrazioenganako euskarazko eskaria*

handitzea: dokumentazioa, bilerak, ahozko eta bestelako harremanak euskaraz izan daitezten eskatzea”.

Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko arau orokorretan, zera ezartzen da idatzizko harremanei buruz: *“Eusko Jaurlaritzak edo beraren erakunde autonomiadun bat dokumentu igorlea denean (herritarrari, beste herri administrazio bati, Eusko Jaurlaritzaren eta beraren erakunde autonomiadunen barruan), komunikazioa ele bietan egingo da, baldin eta hartzaileak berariaz hizkuntza bat aukeratzen ez bada, edo jasotzailea den Herri Administrazioarekin adostu ez bada hizkuntza jakin bat erabiltzea. Bideak jarriko dira, adostasuna oinarri izanda, euskararen erabilera sustatzeko, bai herritarrekin, bai gainerako herri administrazioekin. (...) Hori horrela izanda ere, Eusko Jaurlaritzak edo beraren erakunde autonomiadunek euskaraz igorriko dituzte idatziak baldin eta egoera hauetako bat gertatzen bada: 1.- Herritarrak, beste administrazioak edo (...) aldez aurretik jakinarazi badu euskarazko komunikazioa lehenesten duela”.*

Eskaera honen berri eman zaie saileko atal guztietako arduradunei, eta ondoren, mezua bidali diegu langile guztiei. Saileko intraneteko “euskara” txokoan ere informazioa hori aurki daiteke, eta esteka baten bitartez aldiro-aldiro eguneratzen den udal horien zerrenda eskuratu daiteke. Kontua da, normalkuntza teknikariari oso zaila egiten zaiola eskaera hori modu egokian betetzen ari den jakitea. Tarteko ebaluazioan jasotako datuei erreparatuz gero, euskaraz jasotzen diren beste Administrazioetako idatziei euskara hutsez erantzuten zaio %42an, %49 ele bietan eta %9 gaztelania hutsez. Hortaz, badago zer hobetu oraindik.

8.5 HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK

V. plangintzaldiko lehen zehar-lerroa Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideei buruzkoa da. Irizpide horiek aplikatu daitezten hainbat neurri proposatzen dira planean, tartean, oinarritzakoena, irizpide horien zabalkundea egitea. Horretarako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hiruorriko bat sortu zuen. Sailetako normalkuntza teknikariok langile guztien artean banatu genituen irizpide horiek.

8.6 KARGUDUNEN AGERRALDIAK

Planarekin batera Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak onartu ziren, eta horien artean, aipamen berezia egin zitzaion erakunde-ordezkarien jardunari. Agerraldi publikoetan nola jokatu behar duten ezartzen du: “gai direnek, oro har, emango diote euskarazko jarduerari gutxienez gaztelaniari ematen dioten pisua, bai denborari dagokionez, bai gaiaren tratamenduari dagokionez”. Hala ere, hizkuntza erabilerak agerraldi publiko bakoitzaren helburuetara eta hartzaileen hizkuntza ezaugarriak kontuan hartuta egingo direla ere esaten du planak, eta hori argudiatuz, batzuetan euskararen erabilera nahiko genukeena baino txikiagoa izaten da.

V. Plangintzaldi honetan Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun saileko erakunde ordezkarien hizkuntza erabilera aztertu dugu.

- Gaitasun aldetik, gehienek hizkuntza eskakizunen bat edo euskaraziurtagiriren bat dute, neurri ezberdinean bada ere, euskara ulertu eta hitz egiteko gai dira. Lau dira gaitasunik ez dutela aitortu dutenak.
- Barne komunikazio ofiziala kargudunen artekoa denean beti ele bietan egiten da, gehienetan, itzulpenaren bitartez. Hau da, gaztelaniaz sortzen da eta ondoren euskarara itzultzen da. Eguneroko lanean, lankideekin, hitzunen ezagutzaren mailaren arabera jokatzen da. Euskaldunen arteko elkarrizketetan euskara erabiltzen dela adierazi dute.
- Bileretan agurra euskaraz egiten duten arren, ondoren gaztelania erabiltzen dute eta oinarrizko idatzizko dokumentazioa ere hizkuntza horretan sortzen dute.
- Kabinete eta Komunikazioak sortzen dituen prentsa-ohar eta komunikatuak beti ele-bietan zabaltzen dira, baina gehienetan, gaztelaniaz sortzen dira.
- Sailburuak Legebiltzarrean egiten dituen agerraldiak bi hizkuntzetan prestatzen dira (tartekatuak) eta hasiera eta amaiera beti euskaraz izaten da. Mezu nagusia bi hizkuntzetan zabaltzeari garrantzia ematen diote. Talde politikoek eskatutako interbentzioetan, eskaera egin duenaren hizkuntza gaitasunaren arabera erantzuten du sailburuak.

- Sailburuaren hitzaldi eta jardunaldiei dagokienez, komunikabideak bertan daudenean eta irekia denean hizkuntzen oreka mantentzen da, hasiera eta amaiera euskaraz eginez eta mezu nagusia bi hizkuntzetan bermatuz. Hala ere, kontuan hartzen dira beste irizpide batzuk (non egiten den, zein alorretako publikoari zuzenduta dagoen, adina eta perfila, etab.). Bilera itxia denean eta publikorik ez dagoenean, goi kargudunen hitzaldiaren hizkuntza erabilera antolatzaileekin adosten da. Gehienetan ele bietan egiten da (gaztelania gehiago erabiltzen da), gaztelera hutsean ere asko egiten dira, eta gutxien, euskara hutsean.
- Komunikabideen aurrean, prentsaurrekoetan edo adierazpen publikoetan, bi hizkuntzak erabiltzen dira horretarako gaitasuna dutenean.

Zer hobetu badagoen arren, agerraldi publiko gehienetan bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuta dagoela adierazten dute emaitzek. Beharbada, daturik txarrena barneko-komunikazioari dagokio. Langileen artean eragin nahi bada, goi-kargudunak eredugarri izan beharko lirateke eta euskara lan hizkuntza gisa erabili. Kabinete eta Komunikazioko zuzendariari helarazi zitzaion Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak erakunde-ordezkarien jardunerako zehazten dutena eta asmoa da helburu txiki eta mailakatuak jartzea euskararen erabileran gutxika-gutxika gora egiteko.

8.7 KONTRATAZIOAK

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko otsailaren 28an Akordioa hartu zuen, EAEko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoen administrazio kontratuak gauzatzeko orduan bete beharreko hizkuntza baldintzei buruz.

Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusiak hauxe dio: “Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko, bere erakunde autonomiadunetako, eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako kontratazio organoek nahitaez sartuko dituztela administrazio kontratuetako gutun-azaletan eta berariazko klausula administratiboen agirietan kontratuak burutzean bete beharreko

hizkuntza baldintzak, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko otsailaren 28an hartutako akordioaren arabera”.

2013an sailean egin ziren kontratuei buruzko informazioa jaso zen, kontratu txikiak izan ezik beste kontratu guztiak. Egoera aztertu eta zenbait kasutan kontratuetan ez zirela Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak betetzen antzeman genuen.

Guztira 8 kontratu aztertu ziren. Gutun-azaletan eta berariazko klausula administratiboen agirietan Eusko Jaurlaritzako kontseiluak 2006ko otsailaren 28an hartutako akordioan zehaztutako baldintzak betetzen ziren kasu guztietan, baina baldintza teknikoen agirian ez ziren betetzen. Aztertu ziren 8 kontratuetatik lautan enpresa esleipendunak idatzizko produktua gaztelania hutsean aurkeztu zuen. Lau kasutan Sailak ez zuen jarraipenik egin kontratu agirietan jasotako hizkuntza baldintzak betetzen ziren ala ez jakiteko.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean kontratazioen alorrean ezarritako irizpideak betetzeko konpromisoa hartu dugu (gutxienez, produktua kanpora zabaltzen den guztietan), eta gutun-azaletan eta berariazko klausula administratiboen agirietan agertzeaz gain, baldintza teknikoen agirian ondorengo testua ezartzea erabaki dugu: “kontratuaren xede diren azterlanak, txostenak, proiektuak eta bestelako lan guztiak bi hizkuntza ofizialetan egin behar direla, baita programa informatikoetako interfazeak ere (testuak eta entzutekoak). Hala ere, salbuespenak ere aurreikusi ditugu: gerta liteke baldintza teknikoen agirian ezartzea kontratuaren xede den prestazioa, beraren ezaugarri bereziak kontuan hartuta, beste hizkuntza batean (edo batzuetan) egin behar dela”. Halaber, Zuzendaritza bakoitzak, baldintza horiek betetzen diren ala ez jakiteko, jarraipena egingo die esleipendun enpresa horiei.

8.8 BOST MINUTUKO IKASTAROA

Hala nahi duten langileek, egunero normalkuntza teknikariaren mezua jasotzen dute posta elektronikoaren bidez: Bost minutuko ikastaroa. Mezu hau Enplegu Saileko

Jabi Osés lankideak prestatzen du egunero eta Eusko Jaurlaritzan ez ezik, beste administrazio edo erakunde autonomiadunetan ere zabaltzen da. Hiru atal izaten ditu:

1. Euskal gramatikari lotutako aipamena.
2. Euskaraz idatzitako testu laburra: iritzi artikulua, poesia, liburu bateko pasarte... bost minututan erraz irakur daitekeen edozein testu erakargarri.
3. Noiz behinka, erabilera-planarekin zerikusia duen aipamena: hizkuntza-irizpide bat, ikastaro bati buruzko informazioa, etab.

Bost minutuko ikastaroaren helburua xumea da, baina xumea izanik, beste ekimen askok izan ez duten arrakasta lortu du. Langileek egunero euskararekiko gutxieneko harremana izan dezatela bilatzen du, eta bide batez, nolabaiteko komunikazio-bide bat sortzen du normalkuntza teknikariaren eta langilearen artean. Baina erabilera planarekin ere badu lotura; zehar-lerroetako bat euskara gaitasuna areagotzea izanik, ikastaro honek horretan ere laguntzen duela esan genezake.

8.9 EUSKARAREKIKO ATXIKIMENDUA LORTZEKO JARDUERAK

V. Plangintzaldiko zehar-lerroetako bat izan arren, ez da ekimenik abian jarri euskararekiko atxikimendua lortzeko. Besterik ezean, 2014ko abenduaren 3rako, hots, Euskararen egunerako ekintza batzuk antolatu nahi izan ziren. Horretarako, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposamenak lantzeko lan-saiora deitu zituen sailtako normalkuntza teknikariak. Hainbat ideia proposatu ziren, batzuk onak eta berritzaileak izan zirela gaineratuko nuke, baina azkenean ez zen horietako bakar bat ere abian jarri. Ez horiek ezta besterik ere.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza saileko normalkuntza teknikari Ander Alonsok euskarari eta euskal kulturari buruzko galderekin on-line lehiaketa bat prestatu zuen: “Alfabetoaren jolasa”. Beste normalkuntza teknikarioi eskaini zigun sailtan zabaltzea eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean gogoz onartu eta antolaketan parte hartu genuen. Sei sailtan egin zen “Alfabetoaren jolasa” eta 263 langilek parte hartu zuten, 37 Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailekoak.

Lehiaketa Euskararen egunarekin lotuta zegoenez, nolabaiteko atxikimendua lortu zuela uste dugu.

Beharbada, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak gai hau lantzeko gogoeta egin beharko luke.

9. ESKU-HARTZEAK

V. Plangintzaldi honetan euskarazko atal eta atal elebidunen esku-hartzea aurreikusi da. HPSk -Elhuyar aholkularitzarekin elkarlanean-, sail bakoitzeko kudeaketa planean aukeratutako ataletan abian jartzeko hainbat ekimen proposatu ditu. Ekimenak dinamizatzeko Sailetako teknikariok Elhuyarren laguntza izan dugu.

Gure Sailean mota bakoitzeko atal bat aukeratu genuen. Batetik, 11 langilez osatutako euskarazko atal txiki bat; bestetik, 61 lagunez osatutako atal elebiduna, kasu honetan, Lurralde Ordezkaritza oso bat. Kontuan izan behar dugu 2015eko martxoan hasi garela Elhuyarren aholkularitza jasotzen, eta, hortaz, aipatutako ekimen horiek beste sail batzuetan baino beranduago hasi direla. Sakontze egitasmo hau eta aipatutako esku-hartzeak modu paraleloan gauzatzen ari direnez – eta hortaz, amaitu gabe daudenez -, azterlan honetan prozedurari buruzko informazioa eman eta hausnarketa orokorra egingo dugu, kasu zehatz baten oinarritu beharrean.

9.1 EUSKARA LAN HIZKUNTZA IZATEKO ESKU-HARTZEA

Esku-hartzeak zuzeneko lotura dute V, Plangintzaldiko 2. helburuarekin, hots, euskara lan hizkuntza izateko aurrerapausoak egitea, gero eta gehiago sortuz. Helburu nagusia, euskarazko ataletako eta atal elebidunetako langileek trebezia eta autonomia eskuratzea da, euren lan eginkizunak euskaraz egin ahal izateko. Halaber, saileko gainerako langileentzat praktika eredugarri izan daiteke eta bertan ikasitakoa beste atal batzuetara zabaltzeko esperientzia har dezake normalkuntza teknikariak.

Ekimen honek hainbat fase ditu:

1. Ezertan hasi aurretik normalkuntza teknikariak atalari buruzko ahalik eta informazio gehien jaso eta aztertzen saiatuko da: Lanpostu-zerrenda, egiaztatze-maila, derrigortze-maila, erakundearen egitura dekretutik atalaren eginkizunak, etab.
2. Lehenengo pausua jakinarazpena da. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako zuzendariak ataleko zuzendariari edo goi-kargudunari adieraziko dio ekimena













abian jarriko dela. Jakinarazpen hau aurrez-aurreko bilera batetan edo idatziz egin daiteke.













3. Jakinarazpenaren ondoren Interbentzio batzordea eratuko da. Normalkuntza teknikaria, HPSko ordezkari bat eta Elhuyarreko aholkularia interbenituko den ataleko zuzendariarekin eta zerbitzuburuarekin bilduko dira esku-hartzearen nondik norakoak azaltzeko eta informazioa jasotzeko. Besteak beste, erabilera planari buruzko informazioa emango da, atalak betetzen dituen funtzioei buruzko informazioa jasoko da, horiek euskaraz egiteko aurreikusten dituen zailtasunak edo aukerak zeintzuk diren aztertu, etab.; hau da, aurre-diagnostikoa egin eta abiapuntu teorikoa adostuko dugu.
4. Bigarren batzarrean eragindako guztiei proiektuaren berri emango zaie. Oraingo honetan aurrekoan bildutakoez gain, ataleko langile guztiak ere joango dira. Garrantzitsua da ataleko arduraduna proiektuan inplikatzeari; adibidez, ondo legoke berak egitea sarrera. Erabilera planaren helburu nagusiak eta esku-hartzearen pausoak azalduko zaizkie. V. Plangintzaldi honetan euskarazko ataletan eta atal elebidunetan esku-hartzeak du lehentasuna, hortaz, bata edo bestea izateko baldintzak zeintzuk diren azaldu eta beraien atalaren izendapena jakinaraziko zaie.
5. Ondoren, diagnostikoa dator. Horretarako azterketa komunikatiboak erabiltzen dira. Galdetegi horiek hainbat modutan egin daitezke: aurrez-aurreko elkarrizketetan, langileak bere kabuz edo telefono bidez. Argi dago aurrez-aurreko elkarrizketaren bidez informazio gehiago eta hobea lor daitekeela, baina kontuan hartu behar dugu baita ere sailak oso handiak direla eta baliabideak eskasak. Izen hori erabili arren ez da azterketa bat, ez da inor epaitzeko egiten, eta horrela adierazi behar zaio langileari. Normalkuntza teknikariaren jarrerak eragin handia du lan honetan. Hainbat kontuei buruzko informazioa jasoko da: euskaraz lan egiteko gaitasuna, hizkuntza ohiturak, jendaurreko lanpostua den, zein prozeduratan parte hartzen duen, solaskidetzak, erabiltzen dituen dokumentu motak, prestakuntza premiak,

etab. Azterlan honen hurrengo atalean azterketa komunikatiboak nolakoak diren azalduko dugu.

6. Normalkuntza teknikariak azterketa komunikatibo horietatik ateratako datuak ustiatu, aukerak eta zailtasunak antzeman eta prestakuntza premiak identifikatuko ditu. Kontuan hartu beharko dira langileen gaitasunak, beharrak, dokumentu erabilienak, baliabideak, etab. Horiek guztiak oinarritzat hartuta, normalkuntza teknikariak euskara lan-hizkuntza izatera iristeko ekimena sortzeko proposamen bat landuko da. Proposamenean hainbat kontu hartu beharko dira kontuan: nola erantzun antzemandako prestakuntza-beharrei, zuzenketa-zerbitzua, itzulpen-politika, irudi korporatiboa, solaskideekin akordioak egiteko aukerak, etab.
7. Proposamen-zirriborro hori ataleko zuzendari edo arlo-buruarekin adostuko da lehenengo, eta ondoren,-hartutako atalean aurkeztu beharko da eta langileekin zenbait helburu adostuko dira. Normalkuntza teknikariak entzuten ere jakin behar du, proposamenak egiteaz gain iradokizunak ere jaso behar ditu eta. Batzordekideek behin betiko proposamena onartu, konpromisoak idatziz jaso eta jarraipenerako maiztasuna hitzartuko dute. Proposamena, horrelako taula baten aurkezten dugu:

HIZKUNTZA IRIZPIDEEN PROPOSAMENA

	SAILARENTZAT	EUSKO JAURLARITZARENTZAT	BESTE HERRI ADMINISTRAZIO BATENTZAT	HERRITARRENTZAT EDO KANPOKO ENPRESENTZAT
MEZU ELEKTRONIKOAK				
GUTUNAK				
JAKINARAZPENAK				

OFIZIOAK				
ESKABIDEAK				
AHOZKOAN LEHEN HITZA				

8. Azkenik, interbentzioa bera dator; ezarritako helburuak lortze aldera jarduera planifikatua gauzatzea. Horretarako, alde zuzenetik langileek egindako ekarpenak kontuan hartuko dira.
9. Jarraipena ezinbestekoa da. Ekimenean egokitasuna baloratuko da, hala badagokio, neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko. Jarraipen horrek maiztasun egokia izan beharko du.
10. Esku-hartzearen amaieran balorazioa egin beharko da. Bi helburu izango ditu:
 - a. Batetik, atalari begirako hausnarketa egitea, ondorioak ateratzea eta aurrera begirako pausoak adostea.
 - b. Bestetik, gainontzeko euskarazko ataletan edo atal elebidunetan esku-hartzeko hobetu beharrekoari buruzko hausnarketa egitea eta proposamenak jasotzea.

Esku hartzeek, oro har, ez dute eraginkortasun handirik izan Eusko Jaurlaritzan egin diren saiakeretan. Langileen sentzazioa, askotan, betikoa eskaintzen dugula da; ezer berririk ez. Gainera, azken finean norberaren borondatearen esku geratzen da euskara lan jardunean erabiltzea edo ez, eta arduradunen inplikazio zuzenik gabe, oso zaila da jarraipena egitea eta benetan eragitea. Bestalde, Eusko Jaurlaritzako langileen artean mugikortasun handia dago, eta, horrek esku-hartzearen azken emaitzan eragin dezake, hots, euskara lan hizkuntza izateko ahaleginean. Bestalde, batzuetan ez daukagu zer eskaini. Esate baterako:

- ✓ Esku-hartzeekin ari garela prestakuntza premiak baldin badituzte eta ELEBIko deialdia dagoeneko amaituta badago, hilabeteak itxaron beharko ditugu hurrengo deialdia abian jartzeko.
- ✓ Berariazko ikastaroei dagokienez, baliteke behar den hori dagoeneko egina egotea eta hurrengo egin arte denbora luzea itxaron beha izatea.
- ✓ Dokumentuak zuzentzeko edo ereduak sortzeko laguntza behar badute, nork emango die? Normalkuntza teknikariak? Hauen eguneroko lana kontuan hartuta, ez da erraza zerbitzu hori eskaintzea, are gehiago langilea normalkuntza teknikaririk ez duen Lurralde Ordezkaritza baten badago.

AZTERKETA KOMUNIKATIBOAK

Azterketa komunikatiboa erabilera planetako langileen planifikazioa egiteko erabiltzen dugun prozedura da. 2008ko uztailaren 1ean Eusko Jaurlaritzak onartu zuen erabilera planak zera zioen planean parte hartuko zuten langileei buruz: “Horiek guztiek gutxienez funtzio komunikatiboren bat (batzuk) egingo dute euskaraz”. Langile bakoitzak egin beharreko funtzio horiek zeintzuk diren jakin ahal izateko beharrezkoa da langileei buruzko informazioa jasotzea; hots, bere gaitasunari eta lan jardunari buruzko informazioa.

IV. Plangintzaldian langile bakoitzaren plangintza pertsonalizatua egiteko erabiltzen zen azterketa komunikatiboa; egungo erabilera planean, ostera, atal baten esku-hartzerakoan erabiliko dugu baliabide hau.

Oro har, galdetegi honek honako informazioa eskuratzeko balio digu:

1. Lan jarduna, honen maiztasuna eta parte-hartzen duten langileak.
2. Erabiltzen dituen prozedura administratiboak
3. Erabiltzen dituen idazki motak, nola sortzen dituen, zein hizkuntzatan bidaltzen dituen eta nori (barruko lankide bati, beste administrazio bati edo herritarrei).
4. Ahozkoa:

- Bai telefonoz eta bai aurrekoan erabiltzen den hizkuntza: lehen hitza, eta herritarrak hizkuntza hautua egin ondoren nola burutzen den elkarrizketa.
- Harreman informaletan erabiltzen den hizkuntza.
- Bileretan erabiltzen den hizkuntza
- Jendaurreko ekitaldietan erabiltzen den hizkuntza

Ahozko erabilera aztertzean ere, harremanak erakunde barruko lankideekin, beste administrazio batekin edo herritarrekin diren bereiziko da.

Telefono bidez egin izan dira elkarrizketa komunikatiboak, eta kasu batzuetan, langileak bere kabuz ere bete izan du galdetegia; baina datuak aurrez-aurreko elkarrizketan jasotzea litzateke egokiena, modu horretan informazio gehiago eta hobe eskuratuko baitugu. Esaten denari ez ezik, esaten ez denari ere erreparatu beharko diogu. Horrelako galdetegietan, alderdi psikologikoak garrantzi handia du. Normalkuntza teknikariak diskurtso egituratua eraman eta hizkera zaindu beharko du. Izenak hala dioen arren, ez da azterketa; ez dugu inor epaitu nahi.

Halere, baina giza-baliabide eskasiak beste bide batzuk ere zabaldu ditu. V. Plangintzaldi honetan modu berritzaileagoa jarri dugu martxan: azterketa komunikatiboa on-line. Galdetegia Elhuyarrek Google Apps plataformako 'drive' aplikazioan sortutako

formulario bat da. Horrela, sailetako normalkuntza teknikari bakoitzak kontu bat zabaldu behar zuen Googlen galdetegia erabili ahal izateko. Langileak bere postan jasoko du galdetegia betetzeko gonbita eta esteka; on-line bete eta bidali ahal izango du. Normalkuntza teknikariak elkarrizketa bidez jaso nahi badu informazioa, baliabide informatiko honek beste abantaila bat ere badu: datuak jasotzeko lana errazteaz gain, horiek ustiatzea ere errazagoa da. Datuak grafikoetan erakusten dira, atala bere osotasunean hartuta.

9.2 EUSKARA ZERBITZU HIZKUNTZA IZATEKO ESKU-HARTZEA

Ekimen hau zuzenean lotzen zaio V. Plangintzaldiko lehen helburuari: "herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea eusko Jaurlaritzarekiko eta erakunde autonomiadunekiko harremanetan, bereziki zuzeneko arretako eta jendaurreko zerbitzuetan. Helburua, hortaz, argia da: herritarrak edo administrazioko langileak nahi duen hizkuntzan artatzeko eskubidea bermatzea sailarekin edo erakunde autonomiadunarekin harremanetan jartzean. Baina zeharkako helburuak ere bete ditzake ekimen honek: jendaurreko lanpostuetan ari diren langileak kontzientziaztea eta herritarrak eta Administrazioko langileak artatzeko protokoloak adostea. Ekimen hau ez da ordea eragindako ataletan burutzeko bakarrik; zuzenean nahiz telefonoz, edozein herritar edo Administrazioko langilerekin lan egiten duten langileekin egitea litzateke egokiena.

Ekimen honek hainbat fase ditu:

1. Jendaurreko mapa osatu behar dugu lehenengo, hots, jendaurreko lanpostuen zerrendak, bai herritarrekin eta bai administrazioko langileekin lan egiten dutenak. Lanpostu horien arduradunak ere identifikatu beharko ditugu.
2. Atalari buruzko informazioa jasoko dugu: langileen gaitasuna, zerbitzuak erreklamaziorik jaso duen (Elebide, Behatokia...),
3. Lehenengo saioa, hain zuzen, arduradunekin egingo dugu. Bilera horretan interbentzioaren helburuak eta nondik norakoak azalduko dizkiegu.
4. Ondoren, bilerak antolatuko ditugu jendaurreko lanpostuetan ari diren langileekin. Hauen arduradunek bilera horretan modu aktiboan parte hartzea oso garrantzitsua da.
 - a. Bilera horretan interbentzioaren helburua, zer lortu nahi dugun azalduko dizkiegu. V. Plangintzaldiaren lehen helburuaren garrantziari buruzko hausnarketa egingo dugu eta beraien iritzia jasotzen ahaleginduko gara.

- b. Halaber, atalaren egoerari buruzko informazioa ere jasoko dugu (langileen gaitasuna, hizkuntza-ohiturak, iritziak, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezagutzen eta betetzen dituzten, zailtasunak, etab.) eta aurretik geneukanarekin kontrastatuko dugu.
- c. Badaukagu herritarrak artatzeko protokolo bat, baina garrantzitsua da hori beraien egoerara egokitzea eta jarraitu beharreko irizpideak denon artean adostea.
- d. Irizpide horiek bete daitezten zailtasunik baldin badago, horiei irtenbidea jartzen ahaleginduko gara (adibidez, ahozko jarioasuna lantzeko berariazko ikastaroa eskaini daiteke edo ELEBiko mintegi bat sortu jendaurreko lanpostuetan erabili ohi diren ohiko formulak ikasteko).
- e. Azkenik, herritarren hizkuntza eskubideak bete daitezten hartu beharkeko liratekeen neurriak identifikatuko ditugu eta beraiak adostuko ditugu. Konpromisoak idatziz jasoko ditugu.
- f. Helburuen betetze-mailaren jarraipena egin beharke da arian-arian.

Kasu batzuetan, hala ere, jendaurreko lanpostuetan jarduten duten langileek ez dute behar besteko gaitasunik euskaraz hitz egiteko, beraz, ekimen honek ez du zentzu askorik.

9.3 IKASLEEN ARTEAN EUSKARA LAN HIZKUNTZA IZATEKO AURRERAPAUZOAK

Ekimen honen helburu nagusia honako hau da: euskara eskolak jasotzen dituzten langileek eguneroko lan-jardunean eskoletan ikasitakoa praktikan jartzea. Langileen euskara-gaitasuna hizkuntza-eskakizunen bidez egiaztatzen da, eta zenbait langile euskara-eskoletara joaten dira euskara-gaitasuna hobetzeko eta ziurtagiria lortzeko. Ekintza honen bidez, langileei aukera eman nahi zaie hizkuntza-eskakizunetan

deskribatutako gaitasunak lan-eremuan balia ditzaten. Horretarako, langile bakoitzak konpromisoa hartuko du lan-eginkizun jakin batzuk euskaraz egiteko.

1. Lehenik eta behin euskara eskolak jasotzen dituzten langileen zerrenda osatuko dugu. Normalkuntza teknikariak hainbat datu jasoko ditu: langilearen datuak, egiaztatuta duen hizkuntza eskakizuna, bere lanpostuak duen hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data duen, ze mailatan dagoen, etab.
2. Bilerak banakakoak izango dira. Normalkuntza teknikariak interbentzioaren helburua azalduko dio langileari: egiaztatuta duen hizkuntza-eskakizunean aitortutako gaitasunak lanean erabiltzea.
3. Langilearen lan-jarduna aztertuko da: eginkizunak, lan prozedurak, erabiltzen dituen dokumentuak, etab. Horretarako, azterketa komunikatiboa erabili daiteke. Bion artean langileak egiten dituen lanetatik euskaraz egin ditzakeenak identifikatuko dituzte.
4. Langileak eginkizun jakin batzuk euskaraz egiteko konpromisoa hartuko du, eta hori idatziz jasoko da.
5. Hartutako konpromisoei jarraipena egingo zaie. Horretarako maiztasuna eta modua adostuko dira. Konpromisoak ez balira beteko, langileak idatziz jasoko dituzte zailtasunak, jarraipen-bilera horietan normalkuntza teknikariari emateko.
6. Hiru-lau hilabete geroago, ebaluazio egingo da. Normalkuntza teknikariak eta langileak hartutako konpromisoen betetze-maila aztertuko da eta aurrerapausorik eman den ikusiko da.

Ekimen hau oraindik ez da abian jarri Eusko Jaurlaritzako Saitetan. Baliteke 2015-2016 ikasturtean lanorduetan euskara ikasten ari diren langileekin egitea lehen saiakera. Ikusi beharko dugu zein den beraien erantzuna, egitasmo honen aurrean hartuko duten jarrera, kontuan hartuta, gainera, lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langile askori ez zaiela ezer eskatzen.

9.4 MINTZAGRAMAK

Mintzagramak V. Plangintzaldiko lehen eta bigarren helburuekin lotuta daude; herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea eta euskara lan hizkuntza izateko aurrerapausoak ematea. Helburu nagusia honako hau da: leku berean lan egiten duten edo harreman estua duten langileen arteko hizkuntza ohiturak aldatzea, edo behintzat, horretan laguntzea. Mintzagramen bidez hizkuntza-ohiturei buruzko talde-hausnarketa ahalbidetzen da, eta, neurri batean, euskararekiko atxikimendua eragitea ere lor daiteke. Hortaz, plangintzaldiko hirugarren zehar lerroarekin ere badu zerikusia.

Mintzagramak egiteko, V. Plangintzaldi honetan euskarazko atalei eta atal elebidunei emango zaie lehentasuna. Gutxienez sei laguneko taldeak izan behar dute, eta harremana izan behar dute beraien eguneroko lanean.

Mintzagrama egiteko, normalkuntza teknikariak bi fitxa erabiliko ditu: batean langileen arteko hizkuntza ohiturak jasoko dira; bestean, hizkuntza erabilerari buruzko helburu txikiak hartuko ditu langileak bere borondatez. Ondoren, konpromiso horiek beste dokumentu baten jasoko dira.

Mintzagrama egiteko honako pauso hauek jarraitu beharko dira:

1. Lantaldeko guztiak bilduko ditugu. Garrantzitsua da guztiak egotea, ondoren batzuk parte hartzea nahi ez badute ere. Saioaren helburua azalduko zaie, hots, hizkuntza ohiturak aztertzea eta horietan eragitea.
2. Mintzagrama fitxa osatuko dugu. Pertsona bakoitzak gainontzeko lankideekin zein hizkuntza joera duen jasoko da, koloreen bidez. Ahoz goran egitea komeni da, iritziak gainontzeko lankideekin partekatuz eta iritziak kontrastatuz. Fitxa horretan hainbat datu jasoko ditugu: norberak dioena, besteek diotena, taldearen ikuspegia eta beraien arteko hizkuntza-ohiturak.

Adibidez: jendaurreko atal baten eragiten ari gara. Lanpostu guztiek dute derrigortasun data. Hiru langilek ez dakite euskaraz, beste batek galduta du dagoeneko eta gainerakoek hizkuntza eskakizuna gaindituta

izan arren ez dute ia erabiltzen. Ondorengo taulak mintzagramaren emaitza erakusten du (hizki bakoitza langile bat izango litzateke):

	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N
A	Black	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red
B	Red	Black	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red
C	Red	Red	Black	Red	Red	Green	Red	Red	Light Green	Red	Red	Light Green	Red	Green
D	Red	Red	Red	Black	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red
E	Red	Red	Red	Red	Black	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red
F	Red	Red	Green	Red	Red	Black	Red	Red	Yellow	Red	Red	Light Green	Red	Green
G	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Black	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red
H	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Black	Red	Red	Red	Red	Red	Red
I	Red	Red	Light Green	Red	Red	Yellow	Red	Red	Black	Red	Red	Red	Red	Red
J	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Black	Red	Red	Red	Red
K	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Black	Red	Red	Red
L	Red	Red	Light Green	Red	Red	Light Green	Red	Red	Red	Red	Red	Black	Red	Yellow
M	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Red	Black	Red
N	Red	Red	Green	Red	Red	Green	Red	Red	Red	Red	Red	Yellow	Red	Black

- ✓ Berde argia: %3,3 euskaraz.
- ✓ Berde iluna: %3,3 euskaraz gazteleraz baino gehiago.
- ✓ Horia: %2,2 gazteleraz euskaraz baino gehiago.
- ✓ Gorria: %91,2 gazteleraz.

3. Fitxak taldearen egoera erakutsiko digu. Hobetu daitekeela uste duten galdetuko diegu, eta ahalegina egiteko prest dauden. Hizkuntza aldaketa hori norekin egingo luketen pentsatzea eskatuko diegu.
4. Ondoren fitxa berri bat beteko dugu, baina oraingoan, hemendik epe jakin batera zein hizkuntzatan arituko diren lankideekin galdetuko diegu. Helburua, euskararen erabilera areagotzeko konpromisoa borondatez har dezatela izango da. Ahal dela, konpromiso horiek ahoz goran hartu eta idatziz jasoko dira. Ondorengo fitxa eredu erabil daiteke:

Hemendik aurrera, hau egiteko konpromisoa hartu dut:

Lantokian, ahoz

- Lankideei adieraziko diet nirekin euskaraz egin dezaten; nik ere, ahal dudan neurrian, euskaraz egingo diet.
- Hurbileko lankideekin euskaraz egingo dut beti.
- Euskaraz jardungo dut, eta ikasten ari direnekin mantso eta garbi hitz egiten ahaleginduko naiz, eroso senti daitezen.
- Lagun bat hautatu eta euskaraz egingo dut beti harekin, konfiantza hartzeko.
- Nire euskara-maila areagotzeko aliatuak bilatu eta haiekin euskaraz egingo dut.
- Ez dut oztoporik jarriko lan-bilerak euskaraz izan daitezen.
- Euskaraz ari den talde bat ni azaltzean gaztelaniaz hasten bada, euskaraz jarrai dezaten esango diet

Lantokian, idatziz

- Ordenagailuko softwarea eta interfazea euskaraz jarriko ditut.
- Mezu labur batzuk euskaraz idatziko ditut: emailak, jakinarazpenak...
- Laneko idazkiak euskaraz idazteko ahalegina egingo dut.
- Euskaraz normaltasunez idazteko bidea aztertuko dut lankideekin batera.
- Euskaraz idatziko dut.
- Ahal dudanean oharrak euskaraz jasoko ditut.

Lantokian, jarrera

- Proposatzen diren euskararen inguruko egitasmoetan parte hartzeko prestutasuna adieraziko dut: mintzalagun, bazkaltegi eta antzekoetan.
- Euskaraz jardun nahi dudala adieraziko dut.
- Lanean ematen ditudan orduak baliatuko ditut nire euskara-maila hobetzeko
- Gaztelaniaz egitetik euskaraz egitera egindako aldaketak apuntatu egingo ditut.

5. Adostutako epea igarota (bi hilabete geroago, adibidez), berriro elkartuko gara, eta aurreko saioan jarraitutako prozedura bera jarraituko

dugu: langileak lankide bakoitzarekin erabiltzen duen hizkuntza adierazi beharko da fitxan.

6. Ondoren, aurreko saioan eginiko bigarren fitxa aterako dugu (asmoak jasotzen zituena) eta egun horretan betetakoarekin alderatuko dugu. Bete diren helburuak eta bete ez direnak aztertuko ditugu.

Ekimen hau abian jarri da Jaurlaritzako zenbait sailetan. Erantzunak ezberdinak izan dira taldearen arabera. Langile batzuk oso eszeptiko azaldu dira, beste batzuk ez dute parte hartu nahi izan, eta kasu batzuetan, euskararen erabileran eragiteko balio izan du. Ikusi beharko da, hala ere, egindako lanaren eraginkortasunak noiz arte irauten duen.

9.5 ALDAHITZ

Soziolinguistika Klusterrak Aldahitz ikerketa euskara planen kudeaketan zein hizkuntza erabilerari loturiko gaietan ezagutza zabala duten erakunde hauekin lankidetzan garatu du: AEK-Ahize, Elhuyar Aholkularitza, Emun Koop. E., Hernaniko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Mintzagramen antzera, Aldahitzek ere euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izan dadin lagundu dezake, baina berezi, leku fisikoa partekatzen duten langileen arteko hizkuntza ohiturak aldatzeko helburua du ekimen honek.

V. Plangintzaldi honetako helburuei jarraiki, Aldahitz egitasmoa bereziki aproposa da euskarazko ataletan; batik bat, euskara gaitasun ona izan baina erabiltzeko ohiturarik ez duten atal horietan.

Lankideen arteko harremanetan euskaraz gehiago egiteko aukera emango duen dinamika berria sortzea da asmoa. Bi hilabeteko iraupena izango du eta borondatezko esperientzia da, baina taldearen erabakiak onartu beharko dira. Atal batean Aldahitz abian jartzeko langileen %75ak hala nahi izan beharko du. Aurka egon daitezkeen lankideek aukera izango dute gaztelaniaz aritzeko, baina ez gainontzekoen aukera baldintzatzeko.

Eusle metodologian oinarrituta dago; eusleek eguneroko jardunean euskarari eutsi beharko diote. Eusleak botazio bidez aukeratuko dira. Erakunde barruko

harreman guztietan euskara erabili beharko dute eusleek, bai ahozkoan eta bai idatzizkoan ere; gainontzeko langileek ezin izango diote eskatu inoiz euskaraz esan edo idatzitakoa gaztelaniaz jartzeko. Astean behin, jarraipena egin eta erabakia berretsi beharko da (fitxa baten bidez). Fitxa horrek hizkuntza arauaren betetzean arazorik egon den erakutsiko digu, eta egonez gero, neurri zuzentzaileak hartu beharko ditugu.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Eusko Jaurlaritzako bi sail aukeratu zituen ekimen hau abian jartzeko. Emaitzak nahiko onak izan dira, baina aukeratutako bi kasuetan baldintzak oso onak ziren, bai gaitasun aldetik eta bai jarrera aldetik.

9.6 MOTIBAZIO SAIOAK

Motibazioak zuzen zuenean eragin diezaioke V. Plangintzaldiko lehen eta bigarren helburuen lortzeari, hau da, euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza gisa erabiltzeari. Izan ere, euskara ez erabiltzearen arrazoietakoa bat motibazioa izan daiteke, eta, erabilera planeko hirugarren zehar-lerroak gogorarazten digun moduan, garrantzitsua da euskararekiko atxikimendua lortzea. Plangintza eraldaketa dela ulertzen badugu, Iñaki Marcok dioen moduan “aldaketa bultzatuko duen motibazio horrek aldaketa abiatzeak sortuko duen egonezina baino indartsuago izan beharko du”.

Ekimen honen helburuak hizkuntza-ohiturei eta aurreiritziei buruzko hausnarketa egitea, euskararekiko atxikimendua lortzea eta langileek ezagutzen ez dituzten lankideekin euskararen aldeko hautua egitea izango lirateke. Edozein langilek parte har dezake, baina V. Plangintzaldiak ezarritakoari jarraiki, egokia litzateke euskarazko atalek eta atal elebidunek lehentasuna izatea. V. Motibazioa lantzeko hainbat eskaini izan da Jaurlaritzan, adibidez TELP ikastaroa edo aurten IVAPek eskaini duen “Zergatik ez?”. Plangintzaldi honetan Jaurlaritzan egin izan diren motibazio saioetarako materiala Elhuyar aholkularitzak prestatu du, eta bertako aholkulariak izan dira saioetako dinamizatzaile. Material hori oinarritzat hartuta, hauxe litzateke dinamika, pausuz pausu:

1. Lehenengo atal baten aurreiritziei buruzko lanketa egingo dugu. Euskal Herrian erreferentziako pertsonen osatutako fitxa prestatuko dugu,

aurreiritziei buruzko hitz egiteko. Fitxa banatuko diegu, bakoitzari bana. Eta honako hau galdetu: “Zein hizkuntzatan egingo zenioke lehenbiziko hitza?”. Esate baterako, hau da Elhuyar enpresa Jaurilaritzan erabiltzen ari den fitxa:

Zein hizkuntzatan egingo zenioke lehenbiziko hitza?

Zein hizkuntzatan egingo zenioke lehenbiziko hitza?

	Euskaraz	Gaztelaniaz	Zergatik?
1			
2			
3			
4			
5			
6			

Bakoitzak bere ideiak botako ditu ahoz goran. Garrantzia emango diegu beraien arteko kontrastea eta eztabaida sustatzeari; ahal dela, taldeko kideek beraiek argumentatu dezaten ahaleginduko gara. Honelako galderak egingo daitezke horretarako: “ Zuek ere hori uste duzue? Zergatik?”, “ Norbaitek jarri al du beste zerbait? Zergatik?”, “ Ados zaudete iritzi horiekin?”, “ Zenbateraino uste duzue

jarraitzen diegula geure aurreiritziei?”, “Gertatu al zaizue inoiz norbaiti gaztelaniaz egin eta hura euskaraz jardutea?”,

2. Ondoren, hizkuntzen balioari buruzko hausnarketa sustatuko dugu. Horretarako, hainbat argudio erabil dezakegu: berezia izateak sortzen duen poztasuna, hizkuntza guztien balio unibertsala, berdintasunaren printzipioa, hizkuntzen arteko lehia, solidaritatearen printzipioa, errespetuzko bizikidetzatza, hizkuntzen ekologia, etab. Adu edo pertsona ezagunen batek gai honi buruz eginiko bideorik izanez gero, hausnarketa horretarako aprobeu daiteke (pasarteak ikusi eta gero horiei buruz aritzeko).
3. Hizkuntza-eskubideei buruzko gogoeta sustatuko da.
4. Bukaeran, herritarrek dituzten hizkuntza eskubideak gogoraziko ditugu, eta Administrazioak horiei erantzuteko duen betebeharra.

10. TARTEKO EBALUAZIOA

Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko plan nagusiaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko arduradun nagusia Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra da. Langintza horretarako informazioa Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bilduko du. Ebaluazioak hiru epealdi hauek ditu: urtez urteko ebaluazioa, plangintzaldiaren erdialdean egiten den tarteko ebaluazioa eta amaierako ebaluazioa. 2015eko maiatzean Herri Administrazioetako Euskararen Normalizazioaren V. Plangintzaldiaren tarteko ebaluazioari dagokion datu-bilketa egin da.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren gidaritzapean, EMUN enpresak datu horiek jasotzeko galdetegia prestatu du. V. Plangintzaldi honetarako eskatzen diren datuak aurrekoan eskatzen zirenen antzekoak – edo ia berdinak - badira ere, plangintzaldi honetako helburu eta zehar-lerroen arabera antolatuta daude. Hauen betetze maila plan nagusian definitutako adierazleen bidez neurtzen da. Ebaluazioak alderdi kualitatiboa eta kuantitatiboa jasotzen ditu.

Datu-bilketarekin hasi aurretik Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kontraste-mahai bat antolatu zuen hizkuntza normalkuntzan ari diren hainbat lankideekin, tartean, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko teknikaria. Mahai horretan EMUNek diseinatutako galdetegiari eta honen aginte panelari buruzko hausnarketa egin eta sailetako normalkuntza teknikari batzuk proposamenak egin genituen. Izan ere, normalkuntza teknikariak gara datu horiek jasotzen ditugunak, eta, hortaz, zenbait datu jasotzeko zailtasunak ezagutzen ditugunak. Hala ere, ebaluazioa egin ostean, oraingoan ere, hobetu beharra daukagula pentsatzen dugu hainbat saileko teknikariok. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak galdetegia betetzeko jarraibideak zabaldu baditu ere, Sail bakoitzeko normalkuntza teknikariaren esku geratu da hauek jasotzeko ardura eta datuak biltzeko modua.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean erabilitako metodologia bi motakoa izan da; zenbait datu behaketaren bidez lortu dira, baina gehienak, erabilera

aitortuaren bidez jaso ditugu. Horretarako hainbat galdetegi prestatu dira: zerbitzu hizkuntzari buruzko datuak jasotzeko, lan hizkuntzari buruzkoak, komunikazioari buruzkoak, informatika alorrekoak eta goi-kargudunen gainekoak. Guztira 270 langile eta kargudunek parte hartu dute. Normalkuntza teknikari lana izan da galdetegiak prestatzea, bidaltzea, jasotzea eta datuak ustiatzea.

Datuak erabilera aitortuaren bidez jasotzeak bere arriskua duela aitortu behar dugu, subjektibotasunean oinarritutako datuak ez baitira beti egia osoa. Beharbada jasotako informazioa beste iturri batzuekin kontrastatu beharko genuke, baina ez dugu behar beste denbora eta baliabide izan horretarako.

10.1 EUSKARAREN ERABILERA ZERBITZU HIZKUNTZAN

10.1.1 IDATZIZKO ZERBITZU HIZKUNTZA


Hizkuntza Paisaiari buruzko datuak behaketaren bidez jaso dira. Eraikinaren kanpoan (norabidezko errotuluak, direktorioak, zerbitzuak, identifikaziozkoak, etab.) eta barruan, jendaurreko eta arreta-guneko errotulu guztiak ele bietan daude.

Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzak emandako datuen arabera, sailak 2014an **argitaratutakoaren** erdia baino gehiago, %56a, ele bietan dago; gaztelaniaz argitaratu da %44a eta ez da ezer argitaratu euskara hutsez. Atal honetan sartzen dira aldizkariak, liburuak, liburuxkak, katalogoak, etab.

Publizitateari dagokionez (prentsa oharrak, iragarkiak, publizitate kanpainak, babesletzak, etab.), guztia ele-bietan egiten da. Iragarki eta babesletzen kasuan, azpi-kontratutako enpresek egiten dute lan hori.

Antolaketaren eta Sistemen arduradunarekin batera jaso ditugu **web orriaren eta tramitazio-telematikoaren datuak**. Azken urteetan egindako ahaleginari esker, web orriaren euskarazko bertsioa euskara hutsez dago. Sailak ez du sare sozialik. Gaur egun badirudi tramitazio-telematikoan euskara bermatuta dagoela. Izapide guztiak bai euskaraz bai gaztelaraz egin daitezke, baina herritarren %2k bakarrik egiten ditu euskaraz. Arduradunen esanetan, “batzuetan saila izaten da gaztelaniazko dokumentuak ulertzea eta ezinezkoa euskaraz daudenak”.

Erabilera aitortuaren bidez jaso dugu **herritarrei bidalitako idatziei** buruzko datua: gutunak, jakinarazpenak, inprimakiak, etab. 32 langilek emandako erantzunak aztertu ostean, ondorengo datuak ditugu: %5 bakarrik bidaltzen da euskaraz, %42 gaztelaniaz eta %53 ele bietan.



Herritarrek erakundearekin harremanetan jartzerakoan erabiltzen duten hizkuntzari erreparatuz gero, emandako erantzunen arabera %13k bakarrik egiten dute euskaraz. Horiei, hots, euskaraz jasotzen ditugun dokumentuei- **erakundeak nola erantzuten dien** galdetuta, hauxe izan da erantzunak: % 51 euskaraz, %5 gaztelaniaz eta %44 ele bietan.

10.1.2 AHOZKO ZERBITZU HIZKUNTZA

Ahozko zerbitzu hizkuntza neurtzeko jendaurreko lanpostuetan jarduten duten langileengana jo dugu; hots, herritarrak zuzenean artatzen dituzten arreta eta laguntzarako administrariak, erregistroko langileak eta goi-kargudunen idazkariak. Guztira 12 erantzun jaso ditugu. **Telefono bidezko harreran**, herritarrak hitza hartu edo hizkuntza hautua jakinarazi arte, euskararen erabilera %41ekoa besterik ez da. Telefonoz euskarazko harremana eskatu dutenen artean, elkarrizketa guztien %58 gauzatzen da euskaraz. Datu hauek ikusita, garbi dago euskara zerbitzu-hizkuntza izan dadin asko dagoela oraindik ere egiteke. **Aurrez-aurreko harreran** datuak ez dira hobeak. Herritarrak hitza hartu arte euskararen erabilera %34koa da eta herritarrak euskara hautatzen duenean, elkarrizketa hizkuntza horretan burutzen da %59an.

Sailean dauden **erantzungailuak** behatuta, ele-bietan daudela ikusi dugu.

Herritarrekin edota elkarrekin, beste erakundeetako langileekin, etab. egiten diren ekitaldietan, bileretan jardunaldietan eta prestakuntza saioetan erakundearen ordezkariak eta arduradunak erabiltzen duten hizkuntza jakiteko, galdetegia bidali dugu. Jasotako erantzunen arabera, **jendaurreko ekitaldietan** euskara %33an bakarrik erabiltzen da. Kasu gehienetan entzuleen artean beti erdaldunak daudela argudiatu da. Goi-kargudunak askotan euskara ekitaldiaren hasieran eta bukaerak bakarrik erabiltzen dutela onartu dute.

10.2 EUSKARAREN ERABILERA LAN HIZKUNTZAN

10.2.1 IDATZIZKO LAN HIZKUNTZA

Datu kezkarrienetako bat **sortze hizkuntzari** dagokio. Erabilera aitortuaren bidez jasotako erantzunaren arabera, dokumentuen %13a bakarrik sortzen da euskaraz. Kontuan izan behar dugu, gainera, euskaraz sortzen diren asko behin eta berriz errepikatzen diren idatziak direla, eta dagoeneko ereduak badaudela.

Lan bileretan erabiltzen diren idatziei dagokienez (deialdiak, gai ordenak eta aktak), %3 egiten dira euskaraz, %82 gaztelaniaz eta %15 ele bietan.

Erakundearen barne-harremanetarako idatzi gehienak ere gaztelaniaz bidaltzen dira: %76 gaztelaniaz, %19 ele bietan eta %5 euskaraz.

Sail barruan aurkitutako **behin-behineko oharrak, kartelak, etab.** behatu ostean gehienak ele bietan daudela ikusi dugu, %70 hain zuzen. Gainontzekoak, gaztelaniaz. **Tresneriari** dagokionez (kafe makina, fotokopiagailua, etab.) erdia ele bietan dago eta beste erdia gaztelaniaz. Paper gauzen artean, ordea, guztia ele bietan aurkitu dugu.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak **intraneta** dauka. Azken urteetan euskarazko bertsioa hobetzeko ahalegina egin da, baina gaur egun badago oraindik zer hobetu. Euskarazko sarbidea aukeratuz gero %85a dago euskaraz, baina ez guztia.

Aplikazio eta programa informatikoak ere aztertu ditugu. Ohiko programa informatikoei dagokienez euskaraz nahiz gaztelaniaz daude eskuragarri, baina langileen %2k bakarrik dauka euskaraz instalatuta. Aplikazio berriak ere euskaraz eta gaztelaniaz daude, baina oraindik erabiltzen diren zaharren batzuk gaztelania hutsez daude.

Prestakuntza orokorra jaso duten langileen %91k gaztelania hutsez egin dute ikastaroa. Euskarazko berariazko prestakuntza jaso dutenek bakarrik egin dute ikastaroa euskaraz.

10.2.2 AHOZKO LAN HIZKUNTZAREN ERABILERA

Barruko bileretan gaztelania erabiltzen da nagusiki; %12a bakarrik erabiltzen da euskara, langile eta kargudunek aitortu dutenez.

Telefonoz barruko Jaurlaritza barruko harremanak euskara zein portzentajetan erabiltzen den galdetuta %22a izan da jasotako erantzuna; **aurrez aurrekoan** ere, datu berdina jaso dugu.

10.3 ESKARAREN ERABILERA ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HARREMANETAN

10.3.1 IDATZIZKO ERABILERA

Administrazioen arteko **lan bileretan erabili ohi den dokumentazioari** buruz galdetuta, hots, deialdiak, gai ordenak, aktak, etab., euskara ia ez da erabiltzen: Bileren %4a egiten da euskaraz, %71 gaztelaniaz eta %25 ele bietan.

Sailetik **beste herri administrazioei bidalitako idatzien** erdia ele bietan dago, %4 dago euskaraz eta %46 gaztelaniaz. **Beste herri administrazioek Sailarekin zein hizkuntzatan komunikatzen diren** galdetuta, emaitzak honako hauek dira. %11 euskaraz, %63 gaztelaniaz eta %26 ele bietan. Hemen bi kontu aipatu beharko genituzke: batetik, Saileko hainbat atalek Estatuko Administrazioarekin dituztela harremanak, eta hortaz, gaztelania hutsezko komunikazioa izaten dela; bestetik, azken urtean hainbat udal euskaldunek (gehienak Gipuzkoakoak) euskara hutsez komunikatzeko egin duten eskaera gogoratu behar dugu. Sailak emandako erantzuna

aztertu ostean, erantzun horien %42a euskara hutsez egin dela adierazten dute datuek, %49a ele bietan eta %9 gaztelania hutsez.

10.3.2 AHOZKO ERABILERA

Beste administrazioekin ditugun ahozko erabilera ere aztertu dugu. **Lanbileretan**, euskara %12 besterik ez da erabiltzen, eta **telefono bidezko harremanetan** %26.

10.4 ZEHAR LERROAK

V. Plangintzaldiak zehazten dituen Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak intraneteko "euskara" txokoan jasota daude, eta gainera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak irizpide horiek zabaltzeko egindako hiruorrikoa banatu zen. Langile gehienek irizpide horiek ezagutzen dituzte -modu orokorrean bada ere- baina ez da erraza irizpide horiek betetzen ote diren jakitea, eta **ez dela jarraipenik egiten** aitortu behar dugu. Hala ere, Tarteko Ebaluazio honetan ateratako datuen arabera, argi dago Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak ez direla bere osotasunean betetzen.

Erakunde-ordezkarien hizkuntza gaitasunari buruz ere galdetu dugu. Euskaraz lan egiteko gai direla erantzun duten goi-kargudunen %65ak, baina erdiak bakarrik **lan egiten dute** euskaraz. Kasu honetan galdera zehatzagoak egin beharko liritekeela iruditzen zaigu, ez baita oso argi geratzen zenbateko gaitasuna duten beraien lana euskaraz egin ahal izateko. Hala ere, euskara erabiltzen dutenen kopuruari erreparatuz gero, V. plangintzaldi honetan goi-kargudunei eskatzen zaien lidergoa lortzeko oraindik bide luzea egin behar dugula ematen du.

Erabilera Planaren balorazioa egiteko ere eskatu zaie langile eta erakunde ordezkariei: %3ari oso ona iruditzen zaio, %25ari ona, %14ari erdizkakoa, %3ari txarra eta %2ari oso txarra. Baina erantzun kezagarriena honako hau da: langileen erdiak baino gehiagok (%53) ez du plana ezagutzen edo ez du erantzun nahi izan. Horrek hausnarketarako bidea zabaltzeko beharko ligoke normalkuntza lanetan ari garenoi, datuen arabera argi baitago ez dugula plana modu egokian zabaltzen jakin. Beharbada, aitzakiaren bat bilatze aldera, normalkuntzan aritzeko bitartekoak eskasak

direla argudiatu genezake, azterlan honen beste atalen batean esan dugun moduan, ez baita erraza hainbeste langileengan eragitea. Edonola ere, V. Erabilera Planak Komunikazioari buruzko III.5.3. atalean adierazten du sail guztiek erabilera planerako komunikazio plana izan behar dutela eta eragile, langile eta erakunde-ordezkarri guztiek planaren jakitun egon behar dutela. Tarteko ebaluazioan jasotako datuari erreparatuz gero, ez dugula asmatu aitortu behar dugu.

Tarteko ebaluazioan jasotzen den beste datuetako bat **erabilera planeko ekimenetan langileen eta erakunde-ordezkarrien parte-hartzeari** buruzkoa da. Egiari zor, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailetan egin diren ekimenetan langileen %100 eta arduradunen %100 parte hartu dutela esan behar dugu. Kontua da, gutxi izan direla ekimenak, eta horiek, orain arte, informazio zabaltzeko besterik ez direla esan. Beraz, beraien papera pasiboa izan dela esan behar dugu, eta hortaz, nahiko erraza eta eroso.

Halaber, ebaluazio honetako galderetako batek **erabilera planetako batzorde edo bestelako organoetan erakunde ordezkariek izandako parte-hartzea** neurtzeko eskatzen du. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Batzorde Kudeatzailea birritan bildu da Legealdi honetan, eta arduradunen asistentzia nahiko eskasa izan da, hain zuzen ere, erakunde ordezkarrien herena bakarrik bertaratu da. Beste behin ere, lidergoaren kontzeptua kolokan jartzen du datu honek.

Orain artekoari erreparatuz gero, Sailak dituen indarguneak eta ahuleziak identifikatu ditugu.

10.5 INDARGUNEAK ETA AHULEZIAK

Zerbitzu hizkuntzari dagokionez, ahulezien artean, zera aipatu genezake: jendaurrean lan egiten duten zenbait lanpostutan, langileek ez dutela behar adineko gaitasunik. Horrelako egoerei irtenbidea topatu behar zaie. Gainera, lanpostu guzti horietan ezarri beharko litzateke derrigortasun da, baina erabaki hori “goitik-beherakoa” izan beharko litzateke, sail bakoitzaren esku utzi beharrean. Azkenik, langileek euskaraz lan egitea betebeharra dela eta ez meritua ulertu behar dute.

Euskara **lan hizkuntza** izan dadin lan asko dago egiteke; horixe erakutsi digute Tarteko ebaluazio honetako datuek. Hala ere, V. Plangintzaldi honek badu bere alde ona edo indargunea: aurreko “Trebakuntzak” eta oraingo “Elebi” egitasmoak euskararen erabilera lan hizkuntza areagotu dute. Programa hauetan parte hartu duten langileek dokumentu-ereduak sortu dituzte beraien lanetan erabiltzeko, eta hein batean, motibazio gisa, euskara erabiltzeko akuilu gisa ere balio izan du. Hala ere, egitasmo honetan langile gutxik parte hartu dutela esan beharra daukagu, eta IVAPek ez dituela onartu proposatutako mintegi guztiak. Ahuleziei dagokienez, sortze hizkuntzari dagokionez, tarteko ebaluazioak argi utzi du oso Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean oso gutxi sortzen dela euskaraz, eta euskaraz dagoen gehiena itzulpenaren bidez egin dagoela. Langileei galdetuz gero, arrazoi ezberdinak ematen dituzte: lan-karga, segurtasun eza, eredurik ez izana, eta kasu askotan, prozeduraren parte diren lankideen gaitasun eza. Kate bat osatzen duten langile guztiak ez baldin badira euskaldunak zaila, edo ezinezkoa da euskaraz lan egitea. Horregatik sustatu behar dira hainbestetan aipatzen diren “arnasguneak”.

Herri Administrazioen arteko harremanetan euskara gehiago erabili behar dela dio V.Plangintzaldiko hirugarren helburuak, eta ebaluazio honetan jasotako datuek helburu hori lortzeko lanean jarraitu behar dugula adierazten dute. Zenbait udalek euskara hutsez komunikatzeko egin duten eskaerak euskaraz lan egitera behartzen gaitu. Hori aukeratzat jo genezake, baina aldi berean, ez da erraza eskaera horri modu egokian erantzuten zaion jakitea. Beste hainbatetan adierazi dugun moduan, langileen kontzientzia hartzeaz gain, atal bakoitzeko arduradunaren inplikazioa beharrezkoa eta funtsezkoa dela iruditzen zaigu helburu edo betebeharrak hori lortu nahi bada.

Erakunde-ordezkarien lidergoa behin eta berriz aipatu dugu azterlan honetan. Legegintzaldi honetan arduradun gehienek euskara ulertu eta hitz egiten dute, eta hein batean, euskaraz lan egiteko gai dira. Baina jakitea eta ahal izatea ez da nahikoa; nahi izatea da gakoa. Ez dago lidergorik euskara alorrean, eta gaur egun, euskara bigarren mailako arduratzat hartzen da.

Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza gisa erabiltzeko oinarritzko jarraibideak dira. Irizpide horiek langileen artean

zabalduta dira, eta gehienek, modu orokorrean bada ere, ezagutzen dituzte. Ez da jarraipenik egiten, baina ebaluazio honetan jasotako datuek argi erakusten dute irizpideak ez direla betetzen.

Hizkuntza gaitasunak gora egin du azken urteetan. Hizkuntza eskakizunen sistemak eta normalkuntzan ibili diren eragileen lanak bere fruituak eman ditu. Gero eta gutxiago dira ohiko euskara-eskoletan izena ematen dutenak, baina horrek ez du esan nahi guztiek dutenik bere lanpostuan jardun ahal izateko behar adineko gaitasuna. Badira derrigortasun data igarota izanik lanposturen hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez duten hamaika langile, baina ez da ezer egiten. Badirudi etorkizunean jartzen dugula itxaropen guztia, sartzen diren gazteek euskaraz lan egiteko gai izango direlakoan. Derrigortasun datak lagunduko dute, baina hala ere, ezin dugu itxaron, besterik gabe. Etortzen diren horiek orain daudenen ohiturak hartu eta gaztelania hutsez lan egitea nahi ez badugu, neurriak hartu beharko ditugu garaiz. Euskaraz lan egin dezaten motibatu beharko ditugu, baina euskara hizkuntza ofiziala dela barneratu eta berori erabiltzea betebeharra ere badela ulertu behar dute. Azken hau, **euskararekiko atxikimenduarekin** lotuta dago. Langile askok izan badute, baina maila pertsonalean geratzen da eta ez da erabileran antzematen. Sarritan, normalkuntza teknikariaren ekimenak ere ez dira gogo onez hartzen. Beharbada, atxikimendu hori lortze aldera beste era bateko datuak ere aztertu beharko genituzke ebaluazio honetan; aurreiritziei, jarrerari eta motibazioei buruzko datuak.

11. ONDORIOAK ETA AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK

Ez da gutxi orain arte egindakoa, baina horretan gelditzeak ez digu asko lagunduko aurrerapauso berriak ematen. Horregatik, jarraian egingo diren balorazioek hutsuneei erreparatuko diete, batez ere. Horiek agerian jarriz eta aintzat hartuz baino ez da posible izango plangintzan hobetzea.

Normalizazioaren bidea hartu genuenetik hamaika gauza lortu baditugu ere, momentu honetan bidegurutze baten harrapatuta gaudela iruditzen zait, erabakiak hartu behar direla, norabidea adostu behar dugula. Horretarako, V. Plangintzaldiak ezarritakoa gogora ekarriz, “demokratikoa eta eraginkorra izan behar du burutu behar den prozesu honek”.

Administrazioak herritarren hizkuntza eskubideak urratzen ditu sarritan, eta zerbitzu hizkuntza guztiz bermatua ez badago, are gutxiago lan hizkuntza. Datuei erreparatuz gero, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak ez direla behar bezala betetzen ikusiko dugu, eta betetzen diren kasuetan, jakin badakigu itzulpenen bidez betetzen direla. Aurrera egiteko pausoak guk geuk ematen ez baditugu, bidegurutzean geldi geratzen bagara, planak hitzak besterik ez badira, nekez lortuko dugu euskara administrazio-hizkuntza izatea.

Txepetxek hizkuntza biziberritzeko prozesua ulertzeko baliagarriak diren hiru faktore erabili zituen: motibazioa, ezagutza eta erabilera. Eusko Jaurlaritzan lan handia egin da euskararen ezagutza handitzeko, azken plangintzaldietan erabilera areagotzeko neurriak ezarri dira, baina ez da ahalegin berezirik egin, ordea, motibazioa lantzeko.

Hizkuntzaren normalizazioa planifikatzerakoan pertsonak hartu behar ditugu kontuan. Hizkuntza bat normalizatzeko beharrezkoa da hiztun-komunitate hori osatzen duten pertsonak hizkuntza normalizatu nahi izatea. Legerik justuena izanda ere, erabilera plana diseinatzerakoan ideia bikainak eta berritzaileenak izanda ere, ez dugu normalizaziorik lortuko langileek hala nahi ez badute. Nahi izate hori lortzea derrigorrezkoa da; motibazioan eragin behar dugu, baina eraginkortasunez. Ask

aurreratu da motibazioa lantzeko ekimenetan, eta administrazioa horietaz baliatu beharko litzateke. Normalizazioaz ari garenean eraldaketa prozesu bati buruz ari gara, eta Iñaki Marcok (2015) Hiznet-eko ikasgaiari adierazten duen bezala, “erlaldaketa prozesuak benetan zailak dira, bereziki, euskararen kasuan bezala, faktore psikosozialak tartean direnean eta egituretan aldaketa kulturalak planteatzen direnean”. Hortaz, faktore psikosozial horietan jarri beharko dugu arreta, eta, beharbada, langileen aurreiritzi, jarrera, motibazio eta beldurrak aztertu. Entzuten ikasi behar dugu. Seguruena, Jausorok (1996) aipatutako hiru gizarte-diskurtso motak aurkituko ditugu: euskararen baieztapena, euskararekiko axolagabekeria eta ukapena. Euskararen normalizazioan jarduten dugunok, guztiekin lan egin beharko genukeela gogorarazi nahi dut, baita eraldaketarekiko erresistentziak dituztenekin ere. Begi bistakoa da, askotan, baieztapenaren diskurtsoa duten horiengana besterik ez garelako hurbiltzen amestutako arnaguneen bila. Guztiak behar ditugu eta guztientzat baliagarria izan daitekeen diskurtsoa egituratzea lortu beharko genuke. Eta, egituratzea ez ezik, komunikatzea ere funtsezkoa izango da. Hortxe dago tarteko ebaluazioak utzitako datu kezkarrienetako bat: ez dugu esaten jakin, ez dugu komunikatzen jakin, ez dugu saltzen jakin, ez dugu geureganatzen jakin. Eusko Jaurlaritzako Normalkuntza teknikariontzat oso baliagarria izango litzateke informazioa zabaltzeko, aurreiritziak zalantzan jartzeko, hausnarketa pizteko eta euskararen (eta oro har gutxitutako hizkuntzen) aldeko diskurtsoak zabaltzeko bitartekoa sortzea, horretarako, besteak beste, teknologiak berriek eskaintzen dizkiguten baliabideak aprobetxatuz.

Hala ere, norbanako bakoitzak, gure kasuan Jaurlaritzako langile bakoitzak, motibazioaz haratago euskara erabiltzeko beste arrazoi bat ere baduela ulertu behar du: beharra. Administrazioan bi hizkuntza ofizial ditugu, eta biak berdina legearen aurrean. V. Plangintzaldiko xedea gogora ekarriz, euskara erabiltzeko betebeharra dugu Administrazioan ari garenek: “Euskara eta gaztelania izanik hizkuntza ofizialak, herritarrek beraiek aukeratutako hizkuntzan artatzea, herritarren hizkuntza eskubideak betetzea, eta, beraz, aipatutako ofizialtasuna gauzatzeko euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza gisa erabiltzea”. Legeak, kasu honetan, errealitatearen aurretik doa, edo, beste modu batera esanda, legeak ezarritakoa beteko balitz egoera daukaguna

baino askoz hobea izango litzateke. Euskara ez da langilearen aukera hutsa; euskara bere lan tresna ere bada. Eta, lana modu egokian betetzeko premia baldin badu, langilea bera etorriko da laguntza eske normalkuntza teknikariarengana, ez orain arte bezala, teknikariak premiarik sentitzen ez zuen langileengana jo izan baitu behin eta berriro... Bada behingoz ordua legea betearazteko.

Zorionez, pizgarria kanpotik ere badator maiz. Elebide edo Behatokiaz gain, indarrean dagoen Plangintzaldi honetan zenbait udaletik etorri zaigu. Gurekin euskara hutsez komunikatzeko egin duten eskaerek neurriak hartzera behartu gaituzte. Baina, zergatik ez al du hartzen Administrazio honek jarrera proaktibo hori? Esan diezaiegun beldurrik gabe beste administrazioei euskara hutsezko harremanak nahi ditugula, eta gogorarazi diezaiegun herritarrei hala nahi badute euskaraz artatuko ditugula aurrerantzean. Horretarako koherentziaz jokatu beharko dugu; 3. eta 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta dutenek halabeharrez sortu beharko dute euskaraz eta gaztelaniaz, eta Jaurlaritzak, normalkuntza teknikarien bitartez, horretarako laguntza eskaini beharko die zailtasunak dituztenei. Eta sortu diot, ez itzuli, euskarak behingoz gaztelaniaren morroitzarengandik ihes egin beharko baitu.

Horiek biak izanda ere, alegia, motibazioa eta betebeharra, batzuetan beste zerbait ere behar izaten da; egindako ahalegina saritzea. Euskaraz lan egiten duen langileari ordainsaria ematearen egokitasunari buruzko hausnarketa ez da berria, baina, beharbada, gizabanakoa saritu baino taldea saritzea komeniko litzateke. Ez dakit Administrazioetan horrelakorik egiterik dagoen, baina kalitate ziurtagiri bat sortzea proposatuko nuke; Bai Euskarari Ziurtagiriak edo Bikainek arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiteko sortu dutenaren antzera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Administrazioen euskalduntzeari zuzendutako kalitate ziurtagiria sortzea. Adierazleen bitartez Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak betetzen ote diren baloratu beharko litzateke. Administrazioak edo, tamainaren arabera, hauetako zuzendaritza edo atalak puntuatuko lirateke, emaitzaren arabera kalitate ziurtagiria emateko ala ez. Aurretik aipatutako Bai Euskarari Ziurtagiriak egiten duen moduan, ziurtagiri hori urtero berriro beharko litzateke, horrela, euskararekiko etengabeko konpromisoa sustatuz.

Ez da erraza normalkuntza teknikari lanetan aritzea. Bati baino gehiagori entzun diot gure lana “kea saltzea” dela, eta egia osoa adierazten ez duen arren, ez nuke gezurra denik esango. Xabier Erizeren (2015) hitzak gogora ekarriz euskara saltzen dugu, baina ez dakit gure bezeroen nahi eta beharrekin bat egiten jakin izan dugun. Ez dugu sinesgarritasun askorik Jaurlaritzako langileen artean, behar bada, gure lanerako behar besteko babesik ere ez dugulako. Sinesgarritasun hori irabazteko urratsak eman beharko ditugu; teknikariok gure lanari buruzko hausnarketa sakona egin beharko dugu - badugu eta zer hobetu-, baina ezinbestekoa izango da gure arduradunen parte hartzea eta erabilera planarekiko konpromiso irmoa lortzea.

Erabilera Planak lidergoaz hitz egiten du, baina liderrak falta zaizkigu. Erakunde ordezkariak euskaraz hitz edo lan egiteko duten gaitasunaren arabera neurtzen dugu beraien lidergoa, baina gaitasunak ez ditu ez erabilera ez konpromisoa bermatzen. Langileen eredu eta akuilu izan beharko lirateke, beraien ardura ere baita euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izatea. Euskara eta managementa uztartuz, gure produktuaren ezaugarria da euskara, eta txertatzen ez badugu, saltzen ari garen horri zerbait faltako zaio. Eta, gure bezeroa, gogora dezagun, herria bera da.

Arduradunek bere gain hartu behar dute beraz euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izateko ardura. Ardurapeko langileei ulertarazi beharko diote ez dagoela norberaren hautu pertsonalaren esku, baizik eta legearen eta herriaren esku. Hortaz, eguneroko lanean, kontratazioetan, diru laguntzetan, goi-kargudunen agerraldietan, publizitatean, eta gainontzeko esparru guztietan hizkuntza ofizialak erabiltzen direla bermatu behar dute arduradunek. Eta horretarako, noski, normalkuntza teknikaria izango dute ondoan. Kontuan izan, gainera, egindako lana etorkizunerako berme izango dela. Datozen urteetan Administrazioa sartzan diren langile euskaldunak euskaraz lan egiten dela ikusten badute, beraiek ere euskara erabiliko dute.

Prestakuntzari ere erreparatu beharko diogu. Asko dira urtero IVAPeko katalogo orokorreko ikastaroak egiten dituzten langileak: informatikakoak, administrazio prozedurei buruzkoak, datuen babeserakoak, jendaurreko komunikazioa lantzekoak, etab. Gero eta euskaldun gehiago ditugu gure artean, hortaz, IVAPek euskarazko ikastaroak lehenetsi beharko lituzke. Kontuan hartu ikastaro horietan

sailtako profesionalak elkarrekin jarduten dutela, eta euskaraz sortutako harreman batek euskaraz iraun dezakeela.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak babesa, laguntza eta baliabideak jarri beharko ditu. Hartu beharreko erabakien artean, normalkuntza teknikariak zer eta zertarako diren zehaztu beharko du: kudeatzaile, itzultzaile, trebatzaile, ikuskatzaile, dinamizatzaile, zuzentzaile, komunikatzaile.... “Tzaile” guzti horien artean erabaki beharko du, kontuan izanda baita ere, bere eraginpean izango duen langile kopurua. Bere lana ondo egin nahian eta heldu ezinik dabilen euskara atalari behar adineko giza baliabide eta bitarteko eskaini beharko litzaizkioke.

Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak sinetsi eta sinestarazi behar du; erabilera Plana ez da protokolo hutsa, eman beharreko pausuak zehazten ditu. Baina pauso horiek beldurrez ematen ditugu sarritan, beharbada iritzi publikoaren beldur, eta, pausuak txikiegiak izanik bidea luzeegia egiten ari zaigu. Esate baterako: etorkizunaren berme dira derrigortasun datak, eta planak horiek ezartzeko baldintza logikoak eman dizkigu (jendurrekotasuna eta atalen trinkotasuna); sailtan, aldiz, inori kalterik ez eragitea hartu da irizpide nagusitzat. Zenbait kasutan, lanpostu horiek lan-poltsetatik datozen langileekin hornitzea zaila dela argudiatu da derrigortasun datarik ez ezartzeko, baina sinesgaitza dirudi gure gizartean, egun, edozein esparrutako langile euskaldunik ez dagoela argudiatzea. Igarotako derrigortasun data izan eta lanpostuak duen derrigortasun data egiaztatuta ez duen hamaika langile daude, baina ez da ezer gertatzen, langile horiek jendurreko lanpostuetan baldin badaude ere. Nola normalizatuko dugu euskara administrazioan planetan jasotakoa ere ez badugu modu egokian betetzen?

Jaurlaritzan, gure mundu txiki honetan bizi izan gara, besteak zertan ari diren jakiteko leihotik begiratu gabe, bakoitza bere etxeko (saileko) erronken aurrean bakarrik. Haize freskoa behar dugu, kanpotik etorritako ideia eta egitasmo berriak, esperientziak elkar trukatzeko esparru bat, geure motibazioa astintzeko zerbait... V. Plangintzaldi honetan haize fresko pixka bat hartu zaigu zirrikituren batetik. Elhuyar enpresak bere laguntza eta egiteko modua eskaini digu, eta, egiari zor, zerbait ikasi dugu. Hori kontuan izanda, euskararen normalizazioan ari diren eragileengandik

badugula zer ikasi gogoratu beharko genuke, eta sinergia horiek ez aprobetxatzea aurrera egiteko aukerak eragozte delako.

Edonola ere, aurretik esan bezala, ez da gutxi orain arte egindakoa. Ondo eginikoa aintzat hartuz, kanpoko haize horrek ekar dezakeen indarra geureganatu behar dugula sinetsita, elkarrekin norabide berdinean pausoak emanez, gurea ez ezik herri oso baten ametsa gero eta hurbilago dugula pentsa nahi dut, besterik ez bada, euskarak merezi duelako.

12. BIBLIOGRAFIA

- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa.
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 86/1997 Dekretua (EHAA, 1997/04/17), EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
- 190/2013 Dekretua, apirilaren 9koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.
- 20/2012 Dekretua, abenduaren 15ekoa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatu zituen, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena.
- Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2004ko apirilaren 30eko Agindua, Jaurlaritzako langileentzako ordu-kredituen sistema arautzen duena.
- Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Agindua, IVAPek EAEko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua eta euskara-ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko diru laguntzen arauak ezartzen dituena.
- ARRUTI, Iñaki (2015). Hizkuntza plangintza udalerrri mailan. *HIZNET, Hizkuntza Plangintzako Unibertsitateko Espezialista*. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- COOPER, R.L. (1997). *La planificación lingüística y el cambio social*. Cambridge. Cambridge University Press.
- ERIZE, Xabier (2015) Management eta Hizkuntza Plangintza. *HIZNET, Hizkuntza Plangintzako Unibertsitateko Espezialista*. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILEKO WEB ORRIA. <http://www.euskara.euskadi.eus/r59-734/eu/> (2015.05.13an bisitatua).

- HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA. Euskararen erabilerearen normalizazioa herri administrazioetan. IV. Plangintzaldia (2008-2012). Ebaluazio txostena.
- HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA. Eusko Jaurlaritzaren eta bere erakunde autonomoetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko IV. Plangintzaldia (2008-2012)
- HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA. Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia: V. plangintzaldia (2013-2017).
- IVAP-EKO WEB ORRIA: <http://www.ivap.euskadi.eus/r61-vhome/eu> (2015.05.13an bisitatua)
- JAUSORO, Nekane (1996). *La practica discursiva y el interdiscurso. Una propuesta metodológica para la investigación social del euskera*. Leioa. EHU.
- MARKO, J.I. (2015) Plangintzaren funtsa teoriko eta teknikoak. *HIZNET, Hizkuntza Plangintzako Unibertsitateko Espezialista*. Donostia-San Sebastian. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- MARTÍNEZ DE LUNA, I. (2014). “Orain arteko plangintzen balorazio Soziolinguistikoa”. Udaltop Soziolinguistika Jardunaldia 2014. <http://www.elkarrekinberritzen.net/fitxategiak/dokumentuak/dokumentazioa/inaki-martinez-de-luna-artikulu-web-2.pdf> (2015.05.23an bisitatua)
- SANCHEZ CARRION, J.M. “Txepetx” (1987) *Un futuro para nuestro pasado. Claves para la recuperación del Euskera y teoría social de las Lenguas*. San Sebastian. Elkar.
- SOZIOLOGIA KLUSTERRA (2008). *Soziolinguistika arloko teknikarien formazio premien azterketa*. <http://www.soziolinguistika.eus/files/TxostenaC.pdf> (2015.06.24an bisitatua)